

urtekaria txintxarri

829. zk. 2009-12-30 www.txintxarri.info LASARTE-ORIA



2009, Okendo gabeko urtea




Jaigi

KAFE-ANTZOKIA



**URTEBERRI ON
GUZTIOI!**



**GELTOKI KALEA 4 BEHEA
LASARTE-ORIA • Tel.: 943 377024**



*Alustiza Autobusak
Alustiza Bidaiak, S.L.*


2010 ZORIONTSUA OPA DIZUEGU!

Palazio etxea, Laurgain auzoa • AIA
Tel.: 943 132893 / 830808
Mobila: 656 782999

ABEND

KAFE-ANTZOKIA

EGUNEKO MENUA
DANTZA
BOKATAK
KONTZERTUAK
.....



Gorriko Sak arte irekita!

**Pablo Mutiozabal 5 • Tel.: 943 372089
LASARTE-ORIA**

Urtarrila



Martxoa



Maiatza



Uztaila



Iraila



Azaroa



Otsaila



Apirila



Ekaina



Abuztua



Urria



Abendua



Pablo Barriok
Santurtziko Serantes
IX. Antzerki Saria irabazi du

09 "Isilka-mihisilka armiarmategian" euskarazko lanarekin jaso zuen Pablo Barriok antzerki testuen lehiaketako saria. Antzerki lana nahiko berezia dela esan zigun Pablok "bai kontaktzen den istorioaren aldetik, eta baita erabilitako tratamendu literarioaren aldetik ere": hitz-jokoak erabili ditu, "Isilka-mihisilka armiarmategian" lanaren izenburuan islatzen den bezala. Pablo Barrio Lasarteoriatarra Landaberri helduen Antzerki Taldean ari da.

01 Xpression!!! kultur "azaleratzaile": Xpresion!!! elkarteak Lasarte-Oria, Zarautz, Errenteria eta Irungo Udalarekin elkarlan hitzarmenak sinatu zituen herri horietan kultur ekintzak bultzatzeko eta herri horietako artista ez profesionalizatu auzerak eskaintzeko, espazioak eta baliabideak alegia.

05 Erregeek ez zuten hutsik egin: Urtero bezala, hontan ere, erregeek ez zuten lasarteoriatarrekin duten zitan huts egin. Arratsaldeko 17:00ak aldera iritsi ziren hiru erregeak euren opariekien herrira. Herriko kaleetan hainbat lasarteoriatar zeuden euren zain. Eurpean baina umore onez heldu ziren azkenik bidai luzearen ondoren Okendora.



12 Sahararen aldeko elikagai bilketari ekin zioten: Lasarte-Oriako Saharar Herriaren Aldeko Elkartekoak Sahararen Aldeko Euskal Karabanarako elikagai bilketa

egin zuen. Errefuxiatuen kanpamenduetara arrosa, azukrea, lekadunak, sardinak, atunak eta konpresak eraman zituzten. "Elikagaiekin batera gure solidaritatea eraman nahi diegu" adierazi zuten elkarteko kideek.



14 D3Mren aldeko sinadura bilketa: Lasarte-Oriako ezker abertzaleak Demokrazia Hiru Miliói (D3M) plataformaren aldeko sinadura bilketa bere harritxo jarri zuen. Okendotik kalejira atera eta Udaletxeko idazkaritzara eraman zituzten sinadurak, martxoaren 1eko hauteskundeetan ezker abertzaleak ordezkari izan zezala eskatuz.



16 Okupazioaren eta palestinar herriaren genozidioaren kontra: udaletxearen aurrean okupazioaren eta palestinar herriaren genozidioaren kontrako kontzentrazioa egin zen. Lasarte-Oriako Gerraren Aurkako Plataformarendeiari erantzunez herritar ugari bildu zen.

16 Bideo Lagunak dendak Ostadarreko nesken taldea babestu du. Bideo Lagunak aurreko bi urteetan bezala Ostadar Kirol Fundazioko nesken kadete taldea lagunduko duela jakinarazi zuen.

17 Hondakinen euskal legearen alde sinadura bilketa martxan: Lasarte-Oria Bizirik! taldeak Errausketaren Aurkako Koordinakundearekin batera, hondakinen gaitzako bilketa intentsiboa ezarri, materia organikoaren bilketa sustatu eta honekin ongari naturala egin dadin Eusko Legebiltzarrean Herri Ekimen Legegilea (HEL) erregistratu zuen. Ekimenak gutxienez 30.000 sinaduren babesa behar zuen eta bilketari kein zioten.



17 LOKEko atleten domina uztza handia pista estaliko txapelketetan: Urtarrilaren 17 eta 18ko asteburuan, Anoetako Belodromoan jokatu zen Gipuzkoako Atletismo txapelketan, LOKEko atleten artean azpimarragarria izan zen nesken lana. Maria Montero eta Irati Larrañagak urrezko eta zilarrezko dominak eskuratu zituzten, Maria 60 metro hesiak probako Gipuzkoako txapelkun izan zen eta Irati, berriz, jauzi hirukoitzean txapelkun ordea. Real Sociedad-Fiatc taldeko Jose Ramon Latorek 60 m eta 200 mko probak irabazi zituen eta Leticia Tiati LOKEko atleta ohiak Kraft-Atlc. San Sebastian taldearekin pisu proban parte hartu zuen eta hirugarren izan zen.



19 Osasuna Zentro berriaren inaugurazioa: Eguerdian, Gabriel Inclan Osasun sailburuak, Lasarte-Oriako Beheko kaleko Osasun Zentro berria inauguratu zuen.



Saustatxo

Kultur Elkarte





Uzturre plaza 8 • Tel.: 943 364942 • 20160 LASARTE-ORIA

Santos Uribe Euskadiko txapeldun



31 Santos Uribe Lasarte-Oriako atletak urrezko domina eskuratu zuen Gasteizen egin zuten Euskadiko Beteranoen Atletismo Txapelketan. Uribe Andoaingo Zumeatarrak taldean ari da eta bost kilometro martxa lasterketa irabazi zuen, 70 eta 75 urte artekoen kategorian. Guztira hiru beteranok hartu zuten parte proba horretan, eta bera izan zen guztien artean azkarrena.

27 Oria ibaia gainezka: Oria ibaia gainezka egitekotan zela eta Udaltzainek eguerdian arriskuaren berri eman zuten megafonia bidez herrian zehar. Dena den, erreka puntu batzutan bere bidetik atera bazen ere, ez zen kalte handiegirik izan Lasarte-Orian.



Lanak 2006an hasi ziren eta iazko azaroan eman zion Lasarte-Oriako Udalak Osakidetzari Osasun Zentroa hurrengo 30 urteetan kudeatzeko eta erabiltzeko eskumena.



20 Kale Nagusiko etxe bat bota zuten: Urtarrilaren 19 eta 20an Kale Nagusia 29ko eraikina bota zuten. Loidi-Barren eremuko urbanizazio proiektuaren lanak zirela eta, Sasota auzora igotzeko Adarra kaleko eskailera mekanikoak ere hiru astetan geldi egon ziren.



25 Euritan LIV. Nazioarteko Krosean: Goitik behera blai bukatu zuten Donostiako LIV. Nazioarteko Krosean parte hartu zuten kirolariek. Senior mailan neskatan Ukraniako Aniko Kalovics eta mutiletan Eritreako Medhin izan ziren garaileak, baina goizeko 10:00etan hasita ehunka kirolari aritu ziren lasterka hipodromoan.

Horietatik zortzi izan ziren Lasarte Oriakoak, kross herrikoian atera ziren, Saioa Olasagasti eta Itoitz Rodriguez alebiren lasterketetan, Guillermo Huguet jubenetan eta Gonzalo Sukunza nagusietan. Besteak bezala saiatu ziren baina ez zuten lehen postuetan izaterik lortu. Euria eta lokatza

izan ziren protagonista Donostiako Nazioarteko Krosean.



25 Mario Garridok irabazi zuen ehiza txikiko txapelketa: Buruntz-Azpi Elkar-teak bazkideen artean antolatu zuen ehiza txikiko txapelketa Buruntza mendian. Mario Garrido izan zen txapelduna senior mailan, lau eper eta faisai bat ehizatu ostean. Luis Sanchez bost fisaiekin txapeldun ordea izan zen eta Jose Antonio Lizeaga 3. postuan geratu zen, bi eper eta faisai batekin. Beteranoen mailan, berriz ere Antonio Carrascok irabazi zuen ehizatutako bi eperrei esker.

31 Musika Eskolako ikasleak Hondarribian: sLasarte-Oriako Musika Eskolako trikititxa eta esku soinu ikasleek, Hondarribiako Amute auzoan kontzertua eskaini zuten, Irungo Txorimaloak Soinu Taldea eta Easo Musika Eskolako trikititxa eta panderoko ikasleekin batera.

2010 ZORIONTSUA OPA DIZUEGU!

MADD MEIER

KARROZERIAK

ORDEZKO IBILGAILUA
Bankada elektronikoa - Kabina labeduna
Informatizatutako kolorimetria

CertifiedFirst KIDEA

Oria etorbidea 10 - Brunet pol., 20-21
20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)
Tel.: 943 360 617 - Faxa: 943 366 038
maddmsl@iservicesmail.com

Aseguru konpainia guztiekin baimendutako zerbitzua

ELKI

2010 ZORIONTSUA OPA DIZUEGU!

AUTOESKOLA IZARRA AUTOESCUOLA

www.autoescuelaizarra.com

BEREZKO MULTIMEDIA SISTEMA

BEGIRATU GURE PREZIOAK

GURE TEST-ONLINEEKIN PRESTATU ZATEZU

ERABILI GURE SIMULADOREA ETA AURREZTU %10 KLASA PRAKTIKOETAN

Geltoki Kalea, 11 - beheko | Lasarte | Tel.: 943377005

URTE BERRI ON!

FISIOTERAPIA ZENTROA Ibaiondo

Fisioterapia Masajeak
Errehabilitazioa Osteopatia

Ola Kalea, 12 - beheko. etx. LASARTE - ORIA
Tel / Faxa: 943 370 336 - fisiobalondo@gmail.com



Mozorro-desfile bateratuak jende ugari bildu zuen

14 Mozorroak, musika, herritarrak... eguraldiak berak ere ez zuen huts egin. Lasarte-Oriako konpartsak oso pozik agertu ziren aurtengo Inauterien biharamunean. Desfile bateratuak fruituak eman ditu, eta inoiz baino jende gehiagok hartu du parte aurtengo mozorro festan; konpartsen baitan eta baita kaleetan ere.

Ttakun elkarteak lehen aldiz hartu zuen parte desfilean, zirku erraldoiarekin. Garbi adierazi dute borondatea izanez gero erraza dela herriko kaleetara musika eta kolorea ekartzea Inauterietan.

01 Nora Izagirrek Haizea berria saria eskuratu du: Haizea Berria sariak duela hiru urte sortu zituen Noticias de Gipuzkoa egunkariak sektore desberdinetako Gipuzkoako hainbat pertsonaren lana saritzeko.

Aurtengo edizioan, Moda eta diseinuaren txanda izan da eta Nora Izagierre diseinatzaile lasarteoriatarren lana saritu zuten.



03 Kale Nagusiko ONCEko kabina lekuz aldatu: Kale Nagusian zagoen ONCE erakundeko kabina lekuz aldatu zuten. Hemendik aurrera, bere lekuan, erro-tanda ikusiko dugu bertako gurutze bidean.



03 Alkoholik gabeko ospakizuna: AAKo kideak Lasarte-Orian beraien taldea sortu zeneko urteurrena ospatu zuten Villa Mirentxuko aretoa betez.

Alvaro Iruin sendagile psikiatrat Lasarte-Oriako taldea zorianduz hasi zuen hitzaldia eta ondoren iritzi, adituen ikerketa eta esperientzia ugari planteatu zituen. Ondoren herriko taldeko bi partaidek euren bizipenak kontatu zituzten.

11 Garuna osasuntsu nola mantendu Feen Saria: Gaixotasun Neurologikoen Espainiako Fundazioak FEEN sariak banatu zituen Madrilan eta sarituetako bat Martin Berasategi sukaldaria izan zen. Hain zuzen ere, *No te comas el coco* liburuan egindako lana saritu dute.

13 Piropoak erabiliz Lasarte-Orian nola ligatu: Otsailaren 13an, Zumaburuko zaharren egoitzaren aurrean Jokin Ayerregaray lasarteoriatarra eta Iban Garate aktore eta aurkezlea ikusi ahal izan genituen *Errazu* saioko eszena bat grabatzen.

Otsailaren 15an, neska laguna lortzeko erakutsi zituzten ETB kateko programan eta Jokin izan zen Iban piropoak botatzen erakutsiko zion maisua. Bukaeran, ikasitakoa praktikan jarri behar zuen Ibanek banku batean eserita dauden hiru neskekin.



14 Euskal Karabana, abiatzeko prest: Sahararen Aldeko Euskal Karabanak guztira 2.000 kilo batzea lortu zituzten aurtan, 2008an baino 1.500kg. gutxiago, seguraski krisiaren aztarna. Karabana otsailaren erdialdean egin zuen Sahararuntz.

Honetaz gain, elkartasun karabana-ekin batera, Saharako Maratoia burutu zen eta honetan Tomas Arruti eta Gorka Lasak parte hartu zuten.



14 Sorgin dantza eraman zuen Baionara Erketz taldeak: Inauteriekin zerikusia duten euskal dantzen topaketa batean parte hartu zuen Lasarte-Oriako Erketz taldeak Baionan.

Euskal Herriko zazpi lurraldeetako taldeak elkartu ziren eta bakoitzak

2010 ZORIONTSUA OPA DIZUEGU !

*Gustuko al duzu abestea?
Zatoz gure artera!*

Tel.: 943 365145 / 943 363656 • LASARTE-ORIA

ALBOKA

**ABESBATZA
LASARTE-ORIA**

Argi eta Iñakiren omenezko elkarretaratzea



27 Hilero bezala, preso eta errefuxiatuen senideak udal-letxe aurrean bildu ziren, arratsaldean, hauek bizi duten dispertsio egoera salatzeko. Baina hilabete bukaera honetako elkarretaratzea berezia izan zen. 6 urte bete dira Argi eta Iñaki, Juankar Balerdiren ama eta anaia, Almeriako espetxean preso bisitatzeraz zihoazela istripua izan eta hil zirenetik. Argi eta Iñakiri agurra dantzatu zieten eta haien argazkien aurrean klabelinak utzi zituzten.

25 KIUB eta Udal euskaltegiaren leku aldaketa:

Udal Euskaltegiak eta Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoak (KIUB) ateak ireki zituzten kokaleku berrian, Beheko kale bideko 1 zenbakian, hau da, ambulatorio berriaren bigarren solairuan.



bere lurraldeko dantza bat eraman zuten.

Guztiak ziren inauteriekiko zerikusia zutenak, esaterako Erketz-ek Sorgin Dantza eraman zuten Gipuzkoako dantza gisa



14 Bertso-paperetan bi sari eskuratu ditu Ane Labakak: Ane Labakak bat batean bertsoak kantatzeaz gain, bertso pape-

rak ere idazteko gai dela argi eta garbi erakutsi zuen. Urretxu eta Zumarragako Udalek antolatutako Iparragirre Sarian lehen postua eskuratu zuen eta Errenteriako Ibon Zabalaren omenez egiten den sariketan ere nagusitu zen.



15 Gonzalo Sukunza bigarren San Hilario krozean: Kutxaren Denon Artean Denetik langileen elkarte antolatutako San Hilario kroza burutu zen Donostiako

Miramonen. Zumeatarra taldeko Gonzalo Sukunza lasarteoriatarra bigarren iritsi zen helmugara 23:20 minutuko lehiaren ostean.

24 Ustekabeko suteak kamioi bat eta mikrobus bat erre zituen: Correoseko kamioi bat eta mikrobus bat erre eta beste kamioi bat kaltetua izan zen otsailaren 24ko gauean Zirkuitu ibilbideko poligonoan sortu zen sutean.

Donostiako suhiltzaileak eta Ertzaina bertaratu ziren eta sua itzali ostean, sutea nahita sortua izan zen aztertu zuten. Eta lehenengo azterketako datuen arabera, ustekabeko sutea izan zela jakin arazi zuten.



28 Jende asko afari solidarioan: Lasarte-Oriako Misioetako pastoral barrutiak 50. afari solidarioa antolatu zuen Arantzazuko Amaren eliza azpiko lokalean.

10 urte dira Lasarte-Oriako pastortzako kideek afariak antolatzen hasi zirenetik, helburu nagusi batekin herritarren behartsuenganako sentsibilizazioa lortzea da.

Afaritan 100 lagunetik gora bildu ziren, eta afalostean kantuan aritu ziren.

28 Herri-mina ederki ase dute andaluziarrek: Hogei gradutik gorako egun eguzkitua, eguraldiak berak ere keinu egin zien, Andaluzia Eguna ospatu zuten lasarteoriatarrei.

Herriko Semblante Andaluz elkar-teak hamaika ekitaldi antolatu zituen, bertako bazkideen herri-mina asetzeko moduan.

Beste batzuetan ospakizunak aste-buru osoan luzatu baziren ere, aurtien larunbatean, Andaluzia Egunean bertan, egin zuten ia dena.



Kalitatea eta preziorik onena leku berean

Jalái

cafe bar

- GOSARIAK
- RAZIOAK
- PINTXOAK
- BOKATAK
- SANDWICHAK
- ETXEKO POSTREAK
- PLATER KONBINATUAK

EGUNEKO MENUA

TEL.: 943 372760

KALE NAGUSIA 67 • Lasarte-Oria

URTEBERRI ON!



adats
ile-apaindegia

URTEBERRI ON!

Geltoki kalea 3
Mobila: 600 523988
LASARTE-ORIA

PSE-EE alde handiarekin nagusi hauteskundeetan Lasarte-Orian

01 PSE-EEK 3.816 boto eskuratu zituen Lasarte-Orian Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan; botoen %46,47a, alegia. Duela lau urte 3.655 botoen jabe egin zen PSE-EE eta beraz, gutxi bada ere gora egin du aurten. Gainontzeko alderdiei dagokienez, EAJk 2.092 boto lortu ditu (%25,47), PPK 991 (%12,07), Aralarrek 528 (%6,43), Ezker Batuak 279 (%3,40), EAK 226 (%2,75) eta UPyDK 175 (%2,13). Bestalde, 105 boto zuri izan dira (%1,15). Baliogabetzat jotako botoak, aldiz, 817 boto izan dira; %8,97, alegia. Horietatik gehientsuenak legez kanpo utzitako Demokrazia Hiru Milioi alderdiarenak lirarteke, duela lau urte 20 besterik ez baitziren izan baliogabetutako botoak. Eusko Legebiltzarrerako aurreko hauteskundeetako emaitzekin alderatuta, abstentzioak gora egin du Lasarte-Orian. Aurten 5.141 lagunek erabaki dute botoa ez ematea, duela lau urte 4.895 izan ziren bitartean.

02 **Pertsonen kontrako minei buruzko erakusketa arrakastatsua:** 350 pertsona baino gehiagok bisitatu zuten "Vidas Minadas, diez años despues" pertsonen kontrako minei buruzko argazki erakusketa Manuel Lekuona kultur etxean. Lasarte-Oriako Udalaren sensibilizazio kanpainaren barruan Gervasio Sanchezen argazkien erakusketara, bisita gidatuak antolatu zituen otsailaren 27ra bitartean.

07 **Giro ederra Buruntz-Azpiko calçot janean:** Buruntz-Azpi elkarteko calçot janean 80 lagun bildu ziren Banyolesetik ekarritako mila inguru calçot dastatzeko.

Calçota tipularen kimua da eta parrillan prestatu zuten Kataluniarrek han jan ohi den moduan eta Buruntz-Azpiko kideek arkumea erre zuten. Bazkal ostean, trikitixa eta txalaparta doinuak nagusitu ziren.



11 Hurrengo urteetako Lasarte-Oria maketa birtualean:

Lasarte-Oriak hurrengo urteetan izango duen itxura ikusteko aukera izan zuten herritarrek martxoaren 11tik 27ra bitartean. Udalak maketa birtual bat prestatu zuen, hiriarren antolamendua finkatuko duten Arau Orokorrek jakinaraziz eta ondorengo urteetan garatuko diren egitasmoen ondoren herriak hartuko duen itxura erakutsiz.



12 Herritarren argazkiekin osatutako liburua: Lasarte-Oriako eta lasarteoriarren 400 argazki historikotik gora biltzen dituen "Lasarte-Oria, herri baten unea" liburua aurkeztu zuten martxoaren 12an. Noticias de Gipuzkoa egunkariaren ekimena izan da.

12 Miguel Angel Oriberen erakusketa: Maiatzaren 7a arte egon zen ikusgai Gros auzoko NoColor aretoan Ku Lasarte-Oriako eskultorearen erakusketa. Bere iritzi, "Ku (hutsunea) eta Do (bidea) kontzeptuak bizitzaren oinarriak dira. Miyamoto Musashiren "El camino del

Samurai. El libro de los cinco anillos" liburuan du oinarria Oriberengan eragin handia izan zuen eta.

15 300 haur, Eneko Castoren omenezko krolean: Landaberri ikastolak urtero antolatzen duen euskal krolean berrikuntza, berrerrabiltzen diren edalontziak eta hondakinak biltzeko edukiontzia izan dira aurten.

Giro bikainean euskarari eta kirolari bultzadako bat emanez, Eneko Castro atletaren omenezko XII. Euskal Krosa burutu zen Atsobakar inguruan.

Aurten hirugarren protagonista birziklapena izan zen: hondakin gutxiago

sortzeko, ez zitzairen ur botila txikirik banatu parte hartzaileei. Berrerrabiltzen diren edalontzietan eman zitzairen ura eta edukiontzi horiak jarri zituzten yogurra jan ondoren hartuak biltzeko. 300 neska mutilak izan zuten parte krolean eta domina bana eraman zuten etxera.

15 Beñat Elizalde eta Leire Zubizarreta Euskadiko txapelkun bere mailan: LOKEKO judokak bi urrezko domina eta zilarrezkoa ekarri zituzten Gasteizko Euskadiko txapelketatik. Beñat Elizalde txapelketa izan zen 23 urtetik beherakoen artean. Kadetetan Leire Zubizarreta izan zen txapelkun eta Amaia Curiel bigarren. Iñaki Elizalde, aldiz, bosgarren izan zen 20 urte azpiko Espainiako txapelketan.



OZTARAN, S.L.



*berrikuntza orokorrak
suteen kontrako instalazioak
energia berriztagarriak*

*iturqintza
berokuntza
gasaren instalazioa*

San Frantzisko 4 • 20160 LASARTE-ORIA
Tel.: 943 373389 / Faxe: 943 366598

**2010
ZORIONTSUA
OPA DIZUEGU!**

HARATEGIA • URDATEGIA
ARALAR



URTEBERRI ON!

Jai giroa Emakumearen Egunean

08 Martxoaren 6an hasi ziren Emakumearen Nazioarteko Eguneko ospakizunak. Emakumeen Zentro Zibiko-ko emakumeek eginiko eskulanean erakusketa jarri zuten Brigiden plazan, hormairudi bat egin ere bai gero eta gauean Txintxardin Beltza jatetxean afaldu.

Bilgune Feministak bideoforum bat antolatu zuten martxoaren 6an eta "4 meses, 3 semanas, 2 días" filma eskaini zuten Xirimiri elkartearen. Martxoaren 7an, elkartearen bazkaldu eta kalejiran hurbildu ziren udaletxe aurreko kontzentrazioa.

Martxoaren 8an, Emakumeen Egunean, Donostian burututako manifestaziora joateko deia luzatu zuten bai Bilgune Feministak baita Zentro Zibikoak. Ospakizunekin amaitzeko, EPAko "Lan eta lan beti lan" antzerki taldeak "Entre mujeres" antzezlan eskaini zuten kulturetxean.



19 Loreak Froilan Elesperen oroimenez: Froilan Elespe Lasarte-Oriako alkateordea hil zutenetik badira 8 urte.

Heriotzaren urtemuga bezperan, PSEE alderdiko kideek Elesperen oroimenezko ekitaldiak burutu zituzten. Brigitarren komentuan hamaiketako mezan parte hartu ostean, Lasarte-Oriako hilerrian lore eskaintza egin zuten.

Bertan, besteak beste, Patxi Lopez lehendakariagaia, Ana Urchueguia Lasarte-Oriako alkatea eta Iñaki Arriola Gipuzkoako Idazkari Nagusia egon ziren alarguna eta familiaren ondoan.



22 Xabier eta Mikel Arruti, bikain, Tamesis ibaian arraunean: Londresen Tamesis ibaian burututako "The Head of the River Race" estropada herrikoian, Ur Kirolak-eko beterranoen taldeak, Arruti anai bikiak barne, emaitza oso ona lortu zuten. 35 eta 40 urte bitarteko mailan hirugarrenak izan ziren 14 ontziren artean.

Guztira 183 zortziko atera ziren eta Ur Kirolak-en ontzia 26. iritsi zen helmugara: Zortzi arraunlari eta lema-zainak, 20 minutu 44 segundo eta 65 ehuneko behar izan zituzten erlojuaren kontra irazpi kilometroko ibilbidea egiteko.



22 Pili Bodegas atletak irabazi du Donostiako Udaberri Saria: VII. Udaberri Sarian parte hartu zuten 1.200 lagun artean azkarrena Kamel Ziani izan zen. 10.000 metro 30 minutu eta 42 segundoan egin zituen eta David Martin lasarteoriarrak 2007tik zuen marka hobetu zuen ia minutu batean. Emakumeen mailako 200 korrikalarien artean azkarrena Pili Bodegas Lasarte-Orian bizi den donostiarra izan zen, 38:08 denborarekin.

26 Herriko gaztetxoek zuhaitz eguna ospatu zuten: Martxoaren 21ean ospatzen

den Munduko Egunarekin batera Ingu-rumeneko sailak XVIII. Zuhaitzaren Eguna antolatu zuen Lasarte-Orian.

Landaberri ikastolako LH6 eta Sasoeta-Zumaburuko ikastetxeko LH3 mailako haurrek Brunet mendiko hegalean astigar, pago eta haritzak landatu zituzten. Bertako zuhaitzen basoa osatzen ari dira bertan eta 100 ernamuin berri jarri zituzten.

30 Donaixtikoko ikasleekin aste beteko irakasle: Senideturik diren Lasarte-Oriako Landaberri Institutua eta Donaixtikoko Manex Erdozaintzi Etxart Kolegioak, martxoaren hogeitamarretik apirilaren 4a bitartean ikasleen arteko trukea egin zuten.

Apirilaren 1era arte Donaixtin izan ziren lasarteoriarrak eta apirilaren 2tik 4ra donaixtiarren bisita jaso zuten. Dударik gabe, bost egun horietan harreman estua izan zuten bi taldeek eta azken egunean penaz egin zitoten elkarri agurra.

31 Maialen Chourraut eta Iñaki Elizalde Kursalean omenduak: Gipuzkoako Foru Aldundiak 2008an nabarmendu ziren 130 kirolari eta 17 kirol taldeei omenaldia egin zien martxoaren 31an Donostiako Kursaal aretoan. Eta horien artean ziren Maialen Chourraut eta Iñaki Elizalde lasarteoriarrak.

SUGATE SUKALDEAK

FORMA

7 GARANTIA

WARRANTY

12

vegasa

Heti lehenengo egunetan bezala

- Gremioen koordinazioa
- Ordenadore bidezko diseinua
- Konpromisorik gabeko aurrekontuak
- Horma- armairuak
- Marka guztietako etxetresna elektrikoak

2010 ZORIONTSUA OPA DIZUEGU!



Pintore Kalea 5 • Tel./Faxa: 943 361471
Lasarte-Oria
www.sugate.net

Apirila



Ttipi, ttpa, ttipi ttpa... Korrika!

02 Orain arte, korrika gehienak asteburuan pasa izan dira Lasarte-Oriatik. Aurten, ordea herritik ostegunez igaroko zenez "aurten nahiko xumea izango da" esan zigun AEKko Olatz Urdanpilletak. Egunean bertan, Korrika Txikia egin zen goizean eta Nagusia Urnietatik iritsi zen arratsaldeko 14:45ean eta 16:00etan atera zen Zubietatik Usurbil aldera. Herritar askok parte hartu zuten.

Lasarte-Oriak Mendiokerreko bidegurutzean hartu zuen lekuko, hau eskuz-esku ibili, herriko hainbat kale eta auzo zeharkatu, eta agur esan zioten herritarrek, baina festak jarraitu zuen, ondoren erromeria izan baitzen.

01 **Hortera eguna Oriako frontoian:** Multimusikala Kultur Elkarteak antolatuta Hortera eguna ospatu zen Lasarte-Orian. 18:30etan hasi eta ordu txikiak arte, kalejira, afari herrikoia eta musika kontzertuetaz gozatu zuten Oriako pilotalekuan bildu zirenek. Gainera, ahalik eta horteroen jantzita.

Guztiaren helburua, abenduan ospatuko zen Multimusikala antolatze-ko dirua biltzea zen.



03 **Kolon minbizi ikerketa Lasarte-Orian:** Minbizien artean arriskutsuenetario-koa den kolon minbizi antzemateko bi proba daude, kolonoskopia eta odola goretzeta zehazteko proba.

Proba hauen eraginkortasuna eta balioa alderatzeko, bi urtetan ikerlana egingo dute Lasarte-Oriako osasun

04 **Fabrika bete elkarlan:** "Mundua Konpontzeko Tailerra" ikuskizunean 200 lagun inguru izan ziren Kultur Etxean.

Ttakuneko Bertso Eskolaren proposamena bitxia bezain umoretsu eta bikaina izan zen: Andoni Egaña, Andoni Otamendi, Xabier Paya eta Ane Labaka bertsolari eta Egoitz Lasa, Aitziber Garmendia, Intza Alkain eta Beñat Arroyo aktoreekin batera hainbat herritarrek parte hartu baitzuten.

Besteak beste Blues-a jo zuten musikariek eta "Maritxu Nora Zoaz" kantatu zuen Pilar Katalina sopranoak. Ondoren aktore zein bertsolariek inprobisatu egiten zuten.



zentroak eta Donostiako Poliklinikak. Ikerlana, Luis Bujanda doktoreak koordinatuko du, herritarren osasuna hobeto zaintzeko nahiarekin.

03 **Indarkeria sexistaren aurka:** Lasarte-Oriako Bilgune feministak deituta apirilaren 3an eta 6an arratsaldez kontzentrazioak egin ziren genero indarkeriaren biktima izan ziren bi emakumeren heriotza salatzen. "Indarkeria sexistari erantzun" leloa zuen pankartaren atzean hainbat gazte bildu ziren bi egunetan Udaletxe aurrean.



17 **Musika maketen lehiaketan partehartze handia eta zabala:** 83 talde aurkeztu ziren Gazteria eta Festetako sailak antolatutako musika maketen bigarren lehiaketara. Argi dago indartu egin dela lehiaketa iaztik, lehenengo edizioan 24 taldek parte hartu zuten. Lehiakideen artean Lasarte-Oriako bost talde zeuden, eta zenbait urrutikoak, Sevilla, Bartzelona, Santiago de Chile eta Buenos Aires, besteak beste.

19 **Xumela Donibane Garazin:** Xumela koruak Donibane Garaziko Kantuaren



2010 ZORIONTSUA OPA DIZUEGU!

UDABERRI elkartea

**Andatza plaza z/g, behea
Tel.: 943 371983
LASARTE-ORIA**



Giro bikaina Kuadrillategi Egunean

25 Egun guztiko jaia egin zuten Elgoibar eta Lasarte-Oriako gaztetxoek Kuadrillategi egunean. "Hesian" taldearen kontzertuarekin amaitu zen egitaraua eta bukaeran poz pozik zeuden parte hartutako neska mutilak. Ginkana erraldoia, batukada tailerra, karaokea, joku ezberdinak eta kontzertua izan ziren arrakasta handiena izan zuten jarduerak.



egunean parte hartu zuen. Iparraldeko, zein Hegoaldeko 600 abeslari bildu ziren, horietako 31 lasarteoriarrak.

Egun osoa umore onean igaro zuten, goizean Donibane Garaziko kaleetan zehar eta arratsaldean frontoian euskal doinuak abestuz.



22 Hezkuntzari buruzko hitzaldi sorta: "Nola hezi gure seme-alabak" gaia jorratu zuten Osasun sailak guraso, begirale edo hezitzaileentzat antolatutako hitzaldietan. "Haur tiranoak. Mitotik harago", izan zen hain zuzen apirilaren 22ko zikloa ireki zuten hitzaldiaren gaia. Enkarni Gomezek hainbat argibide eta azalpen eman zituen haur tiranorik ez hezteko.

23 Oriako ibaiertza txukuntze-ko eta frontoi berria egiteko enpresen aukeraketa: Madriletik etorritako aurrekontuei esker, herrian burutuko diren lanak egiteko enpresak aukeratu zituen Lasarte-Oriako Udalak. Batetik, Oriako pabilioien atzealdearen eraberritzeko lanak Campezo Construcción SAU enpresari agindu zizkion 1.850.000 euroko aurrekontuarekin eta bestetik, GEDI S.A. enpresak jasoko zituen

680.000 euro kiroldegi ondoan frontoia eta padel pista eraikitzeko.



23 Pablo Barrioren "Armiarmategian" liburu dendetan: Santurtziko Serantes IX. Antzerki lehiaketan saritutako Pablo Barrioren lana, liburuaren egunean, Donostiako liburu azokan jarri zuten salgai. "Armiarmategian" (isil-mihisilka) Bilboko Artezblai argitaletxeak kaleratu du.

24 Eliz musika Ainhoa Merze-roren ahotik: IV. Musika Topaketa zikloen barruan, Brigitarren komentuan, XVIII. mendeko eliz musika entzuteko aukera izan zen.

Juan Sebastian Bach-en "Pasión según San Mateo" obrako zati zoragarria; Fray Agustin de Etxeberria frantziskotarraren "Miserere" eta

bukatzeko Giovanni Battista Pergolesiren "Stabat Mater" maisulana.

Ainhoa Merzero soprano lasarteoriarrak, Ariel Cruz Laurencio kontratenore kubatarak eta Alberto Saez Puente organojoleak eskaini zituzten lan guzti hauek.



20 Herriko margolarien erakusketa kulturetxean: "Estudio del Pintor" akademiako ikasleen lanen erakusketa zabalik izan zen apirilaren 30era bitartean. David Fernandez, akademiako irakaslearen ekimenez, olioz egindako paisaiak, natura hilak eta erretratatuak zintzilikatu zituzten: "Margolanak erakustea eta besteen lanak ikustea oso aberasgarria da ikasleentzat".

"Gainera senideek eta lagunek ikustea ere ongi dator". Kalitate handiko lanak ziren gehienak.

28 Bajen kudeaketa publikoaren aldeko kontzentrazioa: Lan Osasuna eta Segurtasunaren nazioarteko eguna ospatu zen egun honetan.

Horregatik, kontzentrazioa burutu zuten Michelin-Lasarteko atezaindegian Enpresa Batzordeak deituta, "Bajen kudeaketa publikoaren alde eta FREMAP kanpora" lelopean.

Enpresa Batzordearen hitzetan, 2008an 112 persona hil ziren lan istripuez, eta kopurua aurreko urtearekin alderatuta txikiagoa izan arren egoera tristea eta gordina da.

MEKANIKAKO
TAILERRA



DIMETAL S.A.



ZERBITZU OFIZIALA



LOMBARDINI

SAN JOSE-OLAIZ

URTEBERRI ON GUZTIOI!

• Kamioien txasia
konpontzeko oinarria.

• Aluminiozko eta burdinazko
soldadurak.

• Industriako ibilgailuen konponketa.

Ordutegia: 8:30 - 20:30

Zirkuitu ibilbidea 6 • 20160LASARTE-ORIA • Tel.: 943 361857 • Faxa: 943 366508





UdalTOP topaketak burutu ziren Kultur etxean

07 Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Lasarte-Oriako udalak Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza eta Eudelen laguntzaz, antolatutako UdalTOP Euskara-zerbitzuen I.Topaketari eman zitzaion hasiera. Manuel Lekuona kultur etxean izan ziren jardunaldiak eta lehenengo aldiz, "Nola indartu euskaren erabilera familietan?" gaia landu zuten. Hainbat aditu egon ziren entzungai maiatzaren 7-8 bitartean egondako hitzaldietan. Parte hartzaileen kopurua 105 pertsonetako izan zen.

01 **Kontakizun ateoak:** Rafa Lopez lasarteoriatarren "Aquellas noches de la infancia pasada" kontakizun laburra argitaratu zuten Tenerifeko La Laguna hiriko "La Colmena" liburutegi eta argitaletxeak. Ateismoaren inguruko 20 lan bildu ziren gutzira liburuan.

01 **David Martin Santa Krutzetan garaile:** Andoaingo Santa Krutzeko festen barruan antolatzen den Ignacio Ibaruren Memorialaren 30. Edizioan, David Martin herritarra izan zen garaile. Emakumeen sailkapen orokorrean, Pili Bodegas lasarteoriatarra bigarren postua lortu zuen eta emakume beterranoen mailan berriz, irabazlea izan zen. Egunean bertan, Vicente Huizi omendu zuten.

03 **Seigarren aldiz jarraian txapeldunak:** Oskar Lazkano eta Iñigo Arluziaga bikoteak Bernaitz Odriozola eta Santi Martin bikotea garaitu zuten Ostadar Kirol Fundazioak antolatzen duen Lasarte-Oriako Gomazko XV. Pilota Pala Txapelketako finalean.



03 **Gipuzkoako txapeldunak Lasarte-Orian:** LOKEko atletek Gipuzkoako txapelketan hartu zuten parte. Kadete mailan Gipuzkoako txapeldun izan zen Irati Larrañaga altuera proban; Maria Montero juniorrak ere 400 metro hesiekin proban txapeldun izatea lortu zuen eta Unai Imaz jubenilak brontzezko domina, 800 metroko proban. Antoniano kirol elkarte-ko Olatz Yabenek ere kadete mailako 3.000 metroetan Gipuzkoako txapela eskuratu zuten.

06 **Sandra Izagirre eta Javier Corbacho dira Gazteideien irabazleak:** Gazteria sailak antolatutako txapelketa honen lehen edizioa irabazleek proposamenak hauek izan ziren. Izagirrarena, Lasarte-Oria udalerrri gisa eratu zeneko 25. urteurrenetik, hau da, 2011 urtetik aurrera urtero urteurren ospatzea; Corbachorena aldiz, teknologia berriak Udalaren eta herriko gazterien arteko elkarrengarierako egokitzea.

06 **Krisian emakumeok ahaztuenak eta kaltetuenak:** "A la deriva por los circuitos de la precariedad femenina" dokumentalaren emanaldia antolatu zuten Xirimirin Bilgune Feministak. Honetaz gain, Bilguneak krisiaren inguruan egin duen irakurketaren aurkezpena egin eta eztabaidarako tarte ere egon zen.

08 **Euskadiko Dardo txapeldunak Lasarte-Orian:** Hiru egunez, Michelingo frontoian Dardos Easok antolatutako Euskadiko Bullshooter txapelketa jokatu zen. Euskadiko txoko ezberdinetako dardo jaurtitzailerik ikusi ahal izan genituen. Bakarka, bikotea edo taldeka, helduak, zein gazteak, kategoria ezberdinetan. 200 dardo jaurtitzailerik bi egun eta erditan Euskadiko txapelketa eskuratzeko lehia bizian.



09 **Domin uzta Gipuzkoako tenis txapelketan:** Eskola kirola egitasmoa Gipuzkoako bakarkako tenis txapelketa finalak jokatu ziren Ordizia eta Olaberriako tenis guneeetan. Landaberriko ikasleek maila gutzietan sariak lortu zituzten.

09 **Maria Montero junior mailako Euskadiko txapeldun:** Asteburuan LOKEko gazteek Euskadiko junior eta jubenil txapelketan aritu ziren.

Maria Monterok Euskadiko txapelketa eskuratu zuen 100 metro hesien proban eta hirugarren postua hesiekin egiten den 400 metroko lasterketan ere. Irati Larrañaga gaztetxoak ere domina eskuratu zuen, zilarrezkoa, jubenilak altuera proban.

10 Erromeri paregabea Azkorteke ermitan:

Eguraldia lagun, herritar ugari bildu ziren Ttakun K. E.k antolatutako erromerian. Giro ederra sortu zen Amalur eskolako trikitilarien lanari esker. Meza Azkorteke ermitan, Alboka abesbatza, herri kirolak, Unai Muñoa eta Patxi Etxeberria bertsoariak, pintxoak... denetik aurrera guren egun alai honetan.



Jesus Olaskoaga Igeltseroa

2010 ZORIONTSUA OPA DIZUEGU!

- Berrikuntzak
- Sukaldeak
- Fatxadak
- Teilatuak
- Komunak

Aranzubi kalea 12 • 20130 • URNIETA • Tel.: 657 795175

Buruntz-Azpiren Garagardo Azokak Ostadar omendu zuen



14 Giro bikaina egon zen maiatzaren 14an ireki eta 17an atekak itxi zituen Basaundin Buruntz-Azpi elkarteak antolatutako garagardo azokan. Aurten, Buruntz-Azpi Ehiza eta Arrantza elkarteak, Joxe Manuel Aranburuk Ostadarrek herrian egindako lana goraiatu eta eskertu zuen. 12 garagardo ezberdin eta, ohikoa denez, edariari laguntzeko ukondoa eta saltxitxa mota ezberdinak patata purearekin, lakoia, txorixo egosia, patata bixiak, txibiak, gazta eta euskal pastelarekin.

21 Jarraipen handiko Greba Orokorra: Lehenengo orduetatik hasi ziren herrian zehar greba orokorra egiteko arrazoiak zabaltzen. CNT sindikatuak kontzentrazioa egin zuen Sasotetan auzoko INEM bulegoaren aurrean "Euren krisia, eurek ordaindu, Greba Orokorra" lema oihukatuz eta eskuorriak banatuz. Zenbait sindikatu eta Ezker Abertzaleak autokarabana antolatu zuten.



23 Kalejiran eman zitzaion hasiera VII. Antzerki Asteari: Maiatzaren 23tik ekainaren 16rarte ospatu zen Landaberri Antzerki Eskolak antolatutako VII. Antzerki astea. Orotara 300 izango ziren parte-hartzaileak, 23 antzerki talde eta 7 berriz, dantzakoak. Antzerki Asteari hasiera emateko desfile ikargarria egin zuten parte hartzaile guztiak.

23 Zazpiak bat: Andoni Egaña bertso eskolako zazpi kide-ren aurka aritu zen; Zigor Iriondo, Iñaki Petxarroman, Asier Azpiz, Beñat Iguaran, Ane Labaka, Evaristo Pikabea eta Unai Muñoa. Arriekalleta elkarteak, Egaña eta Lasarte-Oriako Bertso Eskolak lau asalto jokatu eta berdinketa lortu zuten. Beraz, hurrengo urterako hitz-ordua jarri zuten.

23 Xirimiri elkarteak 18 urte bete ditu: Arrano beltza, ikurrina eta Euskal Presoak Euskal Herrira eskatzen duen bandera Buruntzako puntako guretzaren gainean jarri zituzten. Eguerdian, Bai Euskal Herriari aldarrikatuz Buruntza mendira igo ziren. Gauean Aguraingo Opium eta Sortuz taldeen rock kontzertua, eta bukatzeko, herriko Trikihots taldearekin dantzaldia egon zen. Astean zehar ere bi hitzaldi eta diapositiba emanaldia antolatu zituzten; Kolonbia eta Saharari buruz.



14 Aurrekonturik ez urte honetan: Lasarte-Oriako Udal Batzarrean, alkatetzak 2009ko aurrekontuak ez zirela aurkeztuko jakin arazi zuen eta, beraz, 2008ko aurrekontuen luzapena eskatuko zuela. Gainera, partidak eta maileguren bat eskatu beharko zutelara ere aipatu zuen.

19 Bertso berriak, ikastetxeetan jarriak: Ahozketasunaren jaialdia ospatu zuten Landaberri eta Sasotako ikasleek. Hainbat bertso kantatu zituzten, batzuk zaharrak eta gehienak berriak. Hainbat gaiari buruz kantatu zuten: telebistako saioak, ametsak, maitasuna, kirola, eskola eta azterketak, besteak beste, eta askok moztorro, dantza edo keinuekin lagunduta egin zuten emanaldia.



15 Autobusa Buruntzaldeko herrien artean: Buruntzaldeko herrialdeak lotuko dituzten bi autobus lerro berri martxan jarri ziren maiatza erdialdean, Astigarraga-Usurbil eta Urnieta-Usurbil. Foru Aldundiak urte baterako zerbitzua ziurtatu zuen eta erabileraren arabera erabakiko zela mantenduko ziren ala ez adierazi zuen. Hasieratik lurraldebebus txartelaz eta beharenez baliatzeak aukera izan zen.

23 III. Hip Hop jaialdia burutu zen: Giro bikaina izan zen Oriako pilotalekuan burutu zen III. Hip-hop jaialdian. Lasarte-Oriako Udalak lagunduta Hip-hop Elkarteak antolatu zuen. Grafitiak, Break Dance erakustaldi eta tailerra, Lasarte-Oriako Soulriders gazte taldeak Parkourra zer den erakutsi zuen eta kontzertuak goizaldera arte luzatu ziren.

23 Herriko atletak indartsu: Herriko atletak senior mailako Gipuzkoako txapelketan lehiatu ziren. Real Sociedaden dabilen Jose Ramon Latorrek urrezko domina eskuratu zuen eta, beraz, hau dugu 200 metroetako txapelduen berria. Hiru zilarrezko domina, Jose Ramon berak 100 metroetan eta Donostiako taldeetan dabilen Iñigo Sevillanok 110 metro hesiak proban eta Leticia Tiatic disko jaurtiketan lortu zituzten. LOKEko gazteei dagokienez, zilarrezko bi domina eta brontzezko bat ekarri zituzten Lasarte-Oriara. Zilarrezkoak Maria Monterok

IMPRESSION DIGITAL

BIZKER

IMPRESION DIGITAL

- Inprimategi digitala **2010 ZORIONTSUA OPA DIZUEGU!**
Txartelak, Fakturak, Albaranak, Zozketa-txartelak, Kartelak, Katalogoak etab.
- Formatu handiko kartelak eta Argazkiak
Standak, Erakusketa azokak, Ekitaldiak
- Kanpoko eta barruko errotulazioa
Furgonetak, Kamioiak, Toldoak, Saltokiak, Museoa...

Geltoki Kalea, 9 - Tel.: 943 36 20 61 - Lasarte-Oria

JUAN IGNACIO

ORDUTEGIA

Astelehenetik asteartera,
08:30 - 13:30
16:00 - 20:00

Larunbatetan,
08:00 - 14:00

Geltoki kalea 19 • Tel.: 635 707544

HORSE RACING PUB

P

PATRIZIO

patrizio

URTEBERRI ON!

Uistin Kalea 1
Lasarte-Oria



25 urte Beltzak sortu zenetik

30 1984ko irailean sortu zen Lasarte-Oriako lehen errugbi taldea, Jesus Erro eta Sasoetako jai batzordeko ordezkarien artean. Historia handiko Lasarte-Oriako taldearen zilarrezko etzeiak ospatzeko erakusketa bat antolatu zen maiatzaren erdian. Maiatzaren 30an berriz, hitzaldia. Inaki Laskurain, Gipuzkoako Rugbyko Federazioko lehendakaria gonbidatu zuten. Hitzaldia baino, solasaldia izan zen eta ondoren, urteurreneko ospakizunei amaiera emanez, bazkaltzera joan ziren.

400 metro hesiak proban eta Irati Larrañaga altueran lortu zituzten eta Irati berak jausi hirukoitzean eta Unai Imaz 800 metro proban, brontzezkoak.

24 **Ostadarreko infantilak garaile Gipuzkoako kopian:** Michelingo kirol gunean Ostadarreko infantilen taldeak Aretxabaleta-Arizmendi taldearen kontra jokatu zuten. Unai Olaizola eta Xenki Astiazaranen taldeak joko bikaina egin eta Gipuzkoako kopa eskuratu zuten.

26 **Zabaleta auzoak jaiz jai:** Maiatzaren 31a arte luzatu ziren Zabaleta auzoko jaiak. Haurrentzako egitarau zabala aurten ere. Ostiral gauean kantu afaria, dantza garaikidea eta dantzaldia izan ziren, larunbat gauean bertso saioa eta rock kontzertua eta igandean bazkari herrikoiairen ondoren erromeria.



27 **Realaren mendeurreneko bandera Buruntzaldean:** Real Sociedadeko presidente den Jokin Aperribayk gonbidatuta, Buruntzal-

30 **Ostadarreko II. Erregionaleko mutilak txapeldun:** Mailaz igotzeaz gain, mailako txapeldun geratu ziren. Lehen zatian nagusi izan zen taldea, baina bigarren zatian fisikoki zertobait behera egin zuen eta horrek Getaria Keta taldeak hainbat aukera sortzea ekarri zuen. Zertobait sufritu behar izan zuen Ostadarrek amaiera arte, baina azkenean dena ondo atera eta saria eraman zuten.



deko alkateak Zubietako entrenamendu zentroan bildu ziren, lehen taldearen entrenamenduaren aurretik. Alkateei eta eskualdean dauden Realeko lagunarteei mendeurreneko bandera eman zieten.

28 **Lasarte-Oria Bizirik!-en irakurketa baikorra:** Aztikerrek hondakinen kudeaketaren gainean burutu zuten inkestaren irakurketa egin zuen elkarteak. "Herritarren %4,3a soilik erraustegi planta Zubietan jartzearen alde zegoela," azpimarratu zuten. eta "gehiengoak %94,4 administrazioak materia organikoaren bilketa sustatu beharko lukeela uste zutela.

Herritarren %83,1ak materia organikoa gainontzeko hondakinetatik bereizteko prest zegoela eta %61,5ak hondakinen bilketa atez atekoaren bitartez egitearen alde agertu zela", gaineratu zuten.

29 **"Mariren Labirintoa" lanaren estreinaldia:** Victoria Eugenia Antzokian Iñigo Peña musikagile lasarteoriatarren lehenengo musikala, "Mariren labirintoa" estreinekoz egin zen. Donostialdeko musika eta dantza eskolen parte hartzearekin, musika estiloen nahasketa, ahotsa, instrumentuak, argi efektuak, irudiak... eta, hau guztia, eskal mitologiako pertsonaiek eta gaur egungo gazteak nahasten dituen istorioa azaltzeko.



29 **Ane Labaka idatziz Gipuzkoako txapeldun:** Ane Labakak aurten ere Gipuzkoako Eskola

arteko bertso paper lehiaketan lehen saria jaso zuen. Bertsozale elkarteak, DBHko 2. zikloan eta DBHO mailan, hau da, 15 eta 18 urte bitarteko neska mutilen artean Ane Labakaren sorta aukeratu zuten.

30 **Ostadarreko jubenilen taldeak mailaz igotzea lortu zuten:** Santo Tomas Lizeoren aurka jokaturako partidaren, Gorka Belartietaren mutilek joko ona erakutsi zuten. Partida osoan aurretik egon ziren markagailuan eta nahiz eta donostiarrak berdinketa bilatu, 3 eta 2 gailendu ziren azkenean. Festa handia sortu zen Michelinen.



30 **Gaztetxoaren festa handia Michelinen:** Gazte Kluba eta Amaraun ludotekaren jaialdia eta Eskola Kiroloren Eguna elkartu ziren Michelingo kiroldegian. Ehundaka haur eta gaztetxok festa erraldoiaz gozatu zuten. Eskola kirola, puzgarriak, tailerak, zezen mekanikoa, bazkaria, panpinen emanaldia... eta egitaraua Txan magoaren emanaldiarekin borobildu zen.



CASA EXTREMADURA

ZORIONAK ETA URTEBERRI ON!

UZTURRE PLAZA 5 · TEL.: 943372375
20160 LASARTE-ORIA



Lasarte-Oriatik bozka gutxi Europara

07 Europako Legebiltzarreko hauteskondeak burutu ziren Estatu osoan. Lasarte-Orian, Udal edo Eusko Legebiltzarreko hauteskundeetan ez bezala, herritar kopuru murrizta hurbildu zen egoitza eta mahai ezberdinetara. Ez zen arazo handirik egon eta mahaiek 20:00etan puntual itxi ahal izan zuten bozka zenbaketa egiteko.



05 **Aste Berdea:** Munduko Egurenaren nazioarteko ospakizuna izanik eta Aste Berdearen egitarauaren barruan, Manuel Lekuona kulturetxean, Emausek garatutako erakusketa bat inauguratu zen.

“Berrerabilitako etxea” izenburupean, etxe bateko hainbat gelatako altzariak irudikatuko ziren, berezitasun batekin, altzari guztiak Emausek etxez etxe egiten dituen bilketetatik lortuak zirela.

Erakusketaren helburua berrerabilpena eta kontsumo arduratsua bultzatzea zen, hondakinen kudeaketa onenarekin loturiko praktikak diren heinean.



05 **Lasarte-Usurbil Institutuko ikasleak lehiaketetan garaile:** 4. DBHko ikaslea den Silvia Garcia garaile atera zen Coca-Cola antolaturiko “Crea Tus Textos” literatur lehiaketan.

Asmaturiko istorio hasierak idazten zituzten ikasleek, ostean Interneteko

sarean zintzilikatu eta beste ikasle batzuek jarraitu eta amaiera eman behar zioten. Honela, Silvia Garcia Euskadiko irabazlea izan zen istorioen amaiera arloan.

Bestalde, Espainia mailan, ONCEK Braille idazkerari buruz antolaturiko kartel lehiaketan ere saria lortu zuten Institutuko ikasleek, Euskadi mailako lehenengo saria.

06 **Landaberriko tenistak Gipuzkoako txapeldun:** Landaberri ikastolako gaztetxoak Gipuzkoako Taldeko Tenis Txapelketan lehiatu dira ikasturtean zehar. 3 maila ezberdinetan; alebin, infantil eta kadeteetan. Xabier Gonzalez taldeetako batzuk finalera iritsi eta hiruk txapela eskuratu zuten eta beste batek brontzezko domina.



07 **Landaberri ikastolako atletismoko neska txapeldu-norde:** Neska taldeak

14 **Musika eta dantza hartu zuten erdi-gune eta auzoak:**

XXI. Dantzari Txiki Eguna ospatu zen Lasarte-Orian. Faltzes, Urretxu, Zangotza eta Oreretako taldeak etorri ziren eta kalez kale ibili ziren dantzan herriko Landaberri eta Erketz Txiki taldekoekin batera.

Guztira ia 200 bat ume inguru bildu ziren herrian dantzan, erdiak baino gehiago Lasarte-Oriako neska mutilak.



Gipuzkoako ikastetxeen arteko txapelketan bigarren postua eskuratu zuen, beste zortzi ikastolekin lehiatu ostean.

Taldeakideak Saioa Olasagasti, Medea Cuellar, Aroa Lopez, Maria Eugi, Ane Galardi eta Patricia Prieto izan ziren eta Amaia Andres entrenatzaileak azaldu zigunez, merezitako postua izan zen eskuratutakoa.

13 **Alberto Udabe squash-ean txapeldun:** Alberto Udabe izan da 2009ko Lasarte-Oriako Squash txapelduna, Agustin Erkizia gaingiduta. Lehen bi set-etan nagusitu zen Udabe, min hartuta jokatzen ari zen Erkiziaren aurrean, eta honek zegoen baldintzatan ez jarraitzea erabaki zuen.

Kinin Kalbo izan zen hirugarren Aitor Reyes laugarren, eta Kontsolazio finalen Iker Cañedo nagusitu zen.



14 **Andaluziako giroa Isla plazan:** Semblante Andaluz elkarteak antolatutako XVII. Rocioko Erromeriari esker, herriko kaleetan sevillanaz jantzitako jendea



Zubieta Motor, S.L. 2010 ZORIONTSUA OPA DIZUEGU!



Kotxe berriak eta okasiokoak salgai!

- Taxista eta autoeskolentzako zerbitzua
- Ordezko kotxeak, inolako gasturik eta kosturik gabe
- Eskaintza berezia, era guztietako osagarrietan eta neumatikoetan

Oria etorbidea 4, 6. lokala • LASARTE-ORIA Tel.: 943 376940 / 360009 • Faxa: 943 372689



San Juan sua

23 Urtero legez, Erketz Euskal Dantza Eskolako kideek San Juan zortzikoa dantzatuko zuten udaletxe parean.

Ondoren, Udaltzarekin batera, Andatza plazara abiatuko eta bertan soka-dantza dantzatu eta sua piztu zuten.


ikusitako izan genuen. Isla plaza inguruan urdaiazpikoak, fino ardoak, sevillanak, andaluziako banderak, besteak beste. Inguru haietako erromeriarekin lotutako musika eta giroa izan zen nagusi egun osoan zehar.



erabilpen hitzarmena sinatu zuen ekainaren 16an herriko lau kirol elkarterekin; Lasarte-Oria Kirol Elkartea, Buruntzaldeko Igeriketa, Texas Lasartearra futbola eta Bazpi txirringularitza eskolarekin.



15 Okendo plaza eta markako arropak bertsopaper lehiaketako izarrak: Ekainaren 15an banatu zituzten aurtengo bertsopaper lehiaketako sariak. Kultur etxean egindako ekitaldian, Landaberriko eta Sasotako hainbat ikasle elkartu ziren. Ane Labaka eta Beñat Iguaran aritu ziren bertsotan, aurkezle eta antzezle lanetan, berriaz, Amaia Amiano eta Enara Ilegi. Antzezleak gai-jartzaile aritu ziren, eta Anek zein Beñatek bertsosorta eskaini zieten ekitaldira joandako gaztetxoak.



16 Kirol elkartearen egoitza berria Osasun zentroko eraikinean: Lasarte-Oriako Udalak Beko kaleko Osasun zentro berriko 2. solairuko hainbat lokalak

18 AlkARBide bilakatuko da Lasarte-Oriako EA: Lasarte-Oriako afiliatuak ez ziren joan Eusko Alkartasunak ekainaren 20-21 asteburuan egin zuen kongresura.

Jexus Izeta, herriko zinegotziak esan zigunez, Eusko Alkartasunatik bereizitako kritikoekin bat egin dute. Hori dela eta, kongresura joateak "ez duela zentzurik" azpimarratu.

AlkARBide alderdi berria eratzeko pausuak ematen ari ziren, eta etorkizuneari Lasarte-Oriako udaletxean AlkARBide gisa lan egingo zuela zehaztu zuten.

20 Quebrantahuesos-en izan ziren lasarteoriatarak: Aurtentzen, herriko 25 zikloturistek eman zuten izena Quebrantahuesos proba ezagunaren parte hartzeko. 205 kilometro eta lau mendate tartean. Guztira 7.422 partaide izan ziren lasterketan. Izena gehiagok eman bazuten ere, batzuk atzera egin zuten azken momentuan.

20 Ane Labaka bigarren, gazteen Euskal Herriko txapelketan: Euskal Herriko Eskolarteko XXI. Bertsolari Txapelketa jokatu zen Altsasun, Nafarroan. 15urteetik 18 urtera artekoen mailan, Amaia Iturriotz eta Ane Labaka sailkatu ziren Gipuzkoa ordezkatzeko eta hain zuzen ere, Ane Labaka lasarteoriatarra bigarren sailkatu zen, Amaia Iturriotzen atzetik.

29 Jon Tecedor, nor-tasun handiko kirolari eta pertsona, omendu zuen Udalak festetan: Lasarte-Oriako herriak Jon Tecedor Aginaga kirolari bikaina omendu zuen Udaletxeko batzar areto nagusian San Pedro egunean burutu zen ekitaldian A-8an moto istripuan hil eta urte betera, aukeratu du Udalak herriko jaietan omentzeko.

Halterofilian Espainiako txapeldun izan zen 12 aldiz, Europako txapelketetan, munduko hiru kopatan eta Sydneyko olimpiar jokotan parte hartu zuen. Berak du oraindik estatuko errekorra ere. Ingurukoek kirolari bikaina eta pertsona hobea dela nabarmendu zuten.



20 Aurre iritziak alde batera utzi eta erabilitako gauzak erosteko aukera: Udalak antolatutako bigarren eskuko objektuen merkaturian denetariak aurkitu ahal izan zuten hurbildu ziren guztiak.

Helburua berrerabilpena bultzatzea izanik, oso bestelakoak erosteko aukera zegoen. Zapatak, 5 edo 4 euroren truke. Eskuko poltsak, DVDak, pisu bat ere bai, irratiz zaharrak, Beatles taldearen koadroak, garai bateko egunkariak, surf egiteko tabla, apaingarriak...



27 AEK euskaltegiak bota zuen Sorgin Jaietako txupina: Munterri euskaltegiak izan du aurtengo sorgin jaietako txupina ematen dion txupina botatzeko ohoera. Antolakuntzatik, batetik, Udala festa erditik urruntzeko egiten ari den ahalegina salatuz, bestalde, festa gunean eraso sexista edo arrazistari ez zutela onartuko aldarrikatu ere.



27 Herriko ostalariek larunbatean hasi zituzten jaiak: Egun guztian zehar hainbat ekitaldi antolatu zituzten erdialdean eta gauetan kontzertuak Andatza plazan.



30 Konpostagunea Atsobakarraren: Usurbilgo Udalak, Atsobakarreko eremuko Arau Subsidiarioen aldaketa onartu zuen, hau da, Asteasuango kirol-ekipamendurako lur-zati baten erabilera aldatu zen bertan hondakin organikoekin konposta egiteko instalazio bat jartzeko.

San Pedro Jaiak hasi ziren



28 San Pedro Jaiei hasiera ofiziala eman zitzaion txupinarekin. Lau egunez herriak aukera handia izan zuen aurtengo festetan ondo pasatzeko.

SAN PEDRO JAIK





Eskola-Kontseilua eratzeko lehenengo pausoak eman ziren

10 Udal Batzarrean Lasarte-Oriako udalerriko Eskola-Kontseiluaren Araudiaren lehenengo onespina burutu zen, besteak beste.

Eguneko gai nagusia Eako zinegotzia izan ezik, abstenitu zena, zinegotzi guztiak bat etorri ziren bozkan alde eginez.

Era honetara, ikastetxe eta herritarrek egindako eskaerari erantzuna eman zion Udal Batzarrek.

01 Maketa lehiaketako sari-tuek kontzertua eman zuten jaietan: "Son Of The Rock" talde madrildarrak aurkeztutako maketa, epai-mahikideen arabera, onena izan zen. Era horretan, 1.000 euroko saria jaso zuen rock taldeak. Herriko taldeei ematen zaien sarian, berriz, "Plastic" taldeari egokitu zitzaion. 700 euro jasoz pop estiloko musika egiten duen talde lasarteoriatarak.

Sari banaketa uztailearen 1ean egin zen, San Pedro jaietako egitarauaren barruan. Egun horretan kontzertua eskaini zuten bi taldeek, eta saria jaso ere. Dirulaguntzekin, diskoa grabatu eta euren burua ezagutzera emateko aukera izango dute sarituek.



01 Udalak Ttakunekin eta herriko lau ikastetxeekin hitzarmenak sinatu ditu: Lasarte-Oriako Udalak Ttakun Kultur

elkartarekin eta herriko ikastetxeekin elkar laneko hitzarmenak sinatu zituen.

Sinadura ekitaldia hasi baino lehen azaldu zuten bezala, herritarren hizkuntzako gaitasuna hobetu eta euskara erabiltzeko erraztasunak handitzea dute helburu hitzarmenek.

05 Santos Uribe Estatuko txapeldun: Santos Uribe lasarteoriatarra Gasteizen ospatu zen Espainiako Beteranoen txapelketan lehiatu zen.

70 eta 75 urte artekoen mailako 10 km martxa proban parte hartu zuen Zumeatarra taldeko korrikalariak eta 1:10:33.75 denbora eginaz eskuratu zuen urrezko domina.

09 Euskara ziurtagiriak banatu zituzten: Euskararekin "zeu irabazle" leloa du Lasarte-Oriako Udalak saltokietan euskara



bultzatzeko abian jarritako planak. Herriko hainbat saltokik egin zuten bat planarekin eta uztailearen 9tik aurrera beste 13 saltokik eskuratu zuten euskara ziurtagiria. Horren arabera, denda horietan erosleak euskaraz eskatzeko aukera dute.

11 Leticia Tiatik bi domina ekarri ditu Espainiako atletismo txapelketatik: Zilarrezko eta brontzezko domina, horiek dira Leticia Tiatik Krafft-Aleatico San Sebastian taldeko lasarteoriatarak uztailearen 11an eta 12an, Calviá Mallorcako herrixkan burutu ziren jubenil mailako Espainiako txapelketan eskuraturako sariak.

Podiumera igo zen disko eta pisu jaurtiketa probei esker. Pisu jaurtiketa proban, 4 kiloko bola 11,64 metroetara bidali zuen, irabazletik 43 zentrimetroa eta disko jaurtiketan, berriz, hirugarren izan zen 37,54 metroko marka eginaz.

11 Saharako haurrak Lasarte-Oriari dira: "Oporrak bakean" egitasmoaren barruan, Saharako haurrak iritsi ziren herrira eta bi hilabetez izan genituen gure artean.

Hilabete hauetan ekintza ugari burutu zituzten, hala nola, txangoak Txikipark-era, Aquariumera edo Santa Clara irlara, Saharar festa, anbulantzia bat ezagutu eta suhiltzailei bisita egin.

Hau guztia, Saharan bizi duten egoera alde batera utzi eta udara era ezin hobeana igaro zezaten.

16 Oriatarrek Karmengo Amaren eguna ospatu zuten: Karmengo Amaren eguna ospatu zen Oriako auzoan. Solano eskolako trikitilariak kalejira alaiari auzoko kaleak girotu zituzten goiz osoan.

Ospakizun nagusia, 11:00etan Karmengo Amaren kaperan burutu zen meza izan zen. On Ramon Uribetxerria, Juan Luis Murua eta Xabier Andonegi apaizek ospatu zuten meza eta Pilar Catalina sopranoak, Amaia Dorronsoro organojolea lagun, girotu zuten.

17 TSSTko autobus gidarietan baldintzak hobetzea eskatu zuten: TSST konpainiako langileen izenean sindikatuek

idatzi bat kaleratu zuten uztailearen erdialdean, non haien erabiltzaileei haien zerbitzuen kalitatearen behar-kadaren zergatia azaltzen zieten; gehiegizko orduak osasunean ondorioak dituzte; "Mantenu arazo larria dago eta honek gidaritzaren erabiltzaileen erosotasunaren kalterako da." Eta azkenik, ibilbidean zehar dauden geltoki batzuen segurtasun eza aipatzen da. Konpainiari eta Lurraldebiu arazo guztiak konpontzeko eskatu zieten.

BIYAK BAT

URTEBERRI ON GUZTIOI!

Kale Nagusia 40 • Tel.: 943 363964
LASARTE-ORIA

URTEBERRI ON!

la Caixa

Kale Nagusia 34
Tel.: 943 366000 / 943 36608
Faxa: 943 364700
20160 Lasarte-Oria

Altuna

URTEBERRI ON!

DEKORAZIOA

MARKA HORIEN BANATZAILE OFIZIALA

Erakusketa
Kale Nagusia 4 • LASARTE-ORIA
Tel.: 943 362157
Faxa: 943 366157

Suediako parket flotantea
Türkett

Biltegia
Errekalde pol. 33 • DONOSTIA (Lehenago Bianchi)
Tel.: 943 364403

18 Doinu afroak Chillida-Lekun: XVI. mendeko base-
rria inguratzen duen zelaian eta Chillidaren bi eskultura testigu zuela, Makulu Ken talde lasarteoriarrak azkeneko bi urteotan prestatutako lana eskaini zuen.

Kontzertua ikustera gerturatu ziren gehienek zelaian eseri eta afrobeat, funk eta reggae doinuaz eta parajeaz gozatzeko aukera izan zuten.

18 Laura Martin, Euskadiko txapeldun izan zen ehizan: Hondarribiako Jaizkibel mendiko zelaian uztaileen 18-19 asteburuan jokatu zen Euskadiko Ehiza Txapelketan Buruntz Azpi elkarteak Laura Martin nagusitu zen eta irailan Valentzian Estatuko txapelketa parte hartzeko txartela lortu zuen.

19 Brigidatarren komentuko arkupea ikusgai: Lasarte-Oriako Udalak gune txiki bat prestatu zuen Anbulateko Zaharren ondoan, Okendo eta Brigidatarren komentu arteko arkuak ikusi ahal izateko.

Okendo plazako eta udaletxe berriko lanak amaitzen direnean agerian geratuko da arkupea, baina hori baino lehen lasarteoriarrak beti ezkutututa egon diren eta inoiz ikusi ez dituzten arkuak ikusteko aukera izatea zuen helburu udalak.



19 Egun paregabea azokan: Ohizko lekutik kanpo antolatatu bazen ere, Artisauen XXVI. Santa Ana azokak giro ederra izan zuen Dorre parkean.

Eguraldia lagun, lasarteoriatar ugari hurbildu zen herriko, zein Estatu osoko eskulangileak ikusteko eta beren lana ezagutzeko.

Era berean, baratze eta baserriko produktu fresko, pastel eta erroskila goxo eta senda belarrak erosi edo talo

bero-beroa dastatu ahal izan ziren janarien atalean.

23 Gorka Brit Real Unionera salto: Uztaileen erdialdean jakin genuen Gorka Brit lasarteoriatarra Real Unionen hirugarren fitxajea izango zela. Taldeak aurreraria behar zuen eta, irundarrek jokalaria lasarteoriatarrengan pentsatu zuten.

Britek aurkezpeneko prentsaurrekoan adierazi zuenez, "beste eskaintza batzuk nituen, baina Real Unionera etorri nahi nuen. Horregatik Numantzia uzteko egin beharrekoak egiteko eskatu nion nire ordezkariari."

24 Foru Aldundiak hondakinak kudeatzeko plan berria onartu du: Onartutako dokumentuak lurralde antolaketari buruzko iraunkortasun irizpideak ezartzen ditu. Honela, Gipuzkoa osoan zehar konpostaje eta ontziak biltzeko instalazioak eta transferentzia estazioak ezarriko dira eta gune nagusia Zubietan egongo da, non Hondakin Kudeaketa Zentroa egongo den.

Kudeaketa zentro nagusi honetan, aurretratamendu biolehorketako eraikina, balorazio energetikoko eraikina, zepen balorazio eraikina eta ingurumenaren interpretazio zentroa eraikitzea aurreikusitua da.

26 Iñigo Arluziaga eta Imanol Bardaji, txapeldun palan, gomazko pilotarekin: Gomazko pilotarekin jokatutako Lasarte-Oriako XVIII. Pala Txapelketako, hau da, Santa Ana txapelketako finalean herriko jokalarien maila ona ikusi ahal izan zen.

Michelingo frontoian bildutako ikusleen aurrean Iñigo Arluziaga eta Imanol Bardaji nagusitu ziren Xabier Etxezarreta eta Mikel Bardajiren aurrean partidu luze, gogor eta berdinduaren ondoren.




18 Maialen Chourraut Espainiako txapeldun 8. aldiz: Uztaileen 18-19 asteburuan, piraguismoko Espainiako Slalom txapelketa burutu zuen La Seu d'Urgellen. Bertan Maialen Chourraut lasarteoriatarrak berriro ere, 8. aldiz, urrezko domina eskuratu zuen bere mailan, K1. Uztaileen 11-12 asteburuan aldiz, Munduko Kopako lehiaketa hamar onenen artean bukatu zuen, sailkapeneko bederatzigarrena.



26 Patxi zaharra berpiztu zen Santa Ana parodian: Patxi zaharra berpiztu eta Lasarte-Oriara etorri zen apaizarekin batera Oria ibaiaren bestaldean urtegi bat egiteko proposatuz.

"Lendakarissimo" izan zen urtero agintariak kritikatu egiten den Santa Anako parodiaren barruan deklaratu zuen testiguen artean esanguratsuenak.



Geltoki kalea 2
LASARTE-ORIA
Tel.: 943 377900

Barceló Bidaiak

**Bidaiaritik bidaiarira:
besteek dutena dugu, baina zuretzat
egokitua. Etorri eta frogatu!**

Oporretako, ezkontzetako, taldeak, abentura, hegazkinak...

lasarte@barceloviajes.com

URTE BERRI ON!





Taxien kokaleku berria

17 Bidegorri sarearen lanak zirela eta, taxien geltokia lekuz aldatu zen, Hipodromoko 2. zenbakitik 6 eta 8. zenbaki aurrean zegoen aparkalekura, hain zuzen ere. Behin betiko aldaketa da, bidegorriko lanak bukatzean inguru horretan izango baitu taxi geltokiak kokalekua.

09 **Zero Sette akordeoi orkestra Aste Nagusian:** Jende ugari bildu zen orkestra lasarteoriatarak Donostiako Boulevardeko kioskoan eman zuen kontzertua entzutea. Elias Goikouriaeren mutilek entzuleen gozamenerako, besteak beste, "El caserio" edo "Ragon Falez" pasodoble eskaini zuten.

09 **Hulrick zaldiak Alejandro Padilla saria eskuratu zuen:** Zaldi lasterketen bostgarren jardunaldian, Lasarte-Oriako Yonai zalditegiak Alejandro Padilla saria eskuratu zuen, Hulrick zaldiak azken metroetan egindako lanari esker.

11 **Europar zehar bidaiatzen:** Gazteek 20 eguneko abenturari ekin zioten, Europatik zehar, Bosnia eta Kroazia jomuga zutela. Bidean, Frantzia, Italia, Suitza, Austria, Alemania, Liechestein ere ikusteko aukera izan zuten.



15 **Urrezko kopa jokatu zen:** Ikusle ugari egon zen Urrezko kopa egunean, eta horietako asko Lasarte-Oriako zaletuak izan ziren noski. "Le Dèfi du Galop" ligaren barruan kokatutako proba zenez, Europako zaldi oenenak ikusteko aukera egon zen. Honetaz gain, Donostia 2016 Hiriburu kulturalaren babesa izan zuen proba honek.



20 **Arantzazura bidai:** Biyak Bat Erretiratuen etxeko lagunak Arantzazura egin zuten bisita. Bertan meza entzun eta Zestoan bazkaldu zuten. Eta Zarautz ere bisitatu zuten arratsalde partean.

23 **Ostadarreko Erregional Goreneko taldearen auzpe:** II. erregionaleko txapeldun izan ostean, taldeak Erregional Gorenean parte hartuko zuen taldearen aurkezpena egin zuen. Berrikuntzarik nabarmenena entrenatzaile aldaketa izan zen, Joxean Beldarrain lasarteoriataraki Iñaki Zurutzaren lekua hartu baitzuen.

2010 zoriontsua
opa dizuegu!

TXITXARDIN BELTXA

**Oria Etorbidea 12 • Lasarte-Oria
Tel.: 943 370 304**

PATATA BIZIAK ETA
PLATER
KONBINATUAK

Antxota kalea 5, behea
Tel.: 943 361004 • LASARTE-ORIA

URTEBERRI ON!

ARRATE

Taberna Jatetxea



2010 ZORIONTSUA OPA DIZUEGU!
ZERO SETTE

Trikitixa eta esku-soinetan
aukera zabala:
Berriak, 2. eskukoak
eta alokairuan.

Oria etorbidea 10, 303. bulegoa • 20160 Lasarte-Oria • Gipuzkoa
Tel.: 943 372817 • www.tirikitrauki.com • tirikitrauki@tirikitrauki.com

Uosla



URTEBERRI ON GUZTIOI!

MEKANIKAKO ZERBITZU
OROKORRA

Jatxibel plaza 2, behea • Tel.: 943 370203 • LASARTE-ORIA

EPEL

TXERRI-BELARRI GUTIZIAZKOAK
ETA OLAGARROA



- AUKERA IZUGARRIA
-pintxoetan
-razioetan
-ogitarkeotan
-plater konbinatuetan

URTEBERRI ON!

Goikale 1 • Tel.: 943 362701 •
LASARTE-ORIA

2010 ZORIONTSUA OPA DIZUEGU!



INTZA
ELKARTEA

Sagardotegi kalea • Tel.: 943 361534 • LASARTE-ORIA



2010 ZORIONTSUA OPA DIZUEGU!



txintxarri

Kultur Elkarte
Ttakun



Maialen Chourraut bigarren mundialetan

13 Munduko bigarren izan zen Maialen Chourraut lasarteiatarra La Seu d'Urgellen burutu ziren piraguis-moko Munduko proban. Pekineko Joko Olinpikoetan gertatutakoa ahaztu eta sailkapen txandak zein final aurrekoak lehenengo postuan bukatu zituen lasarteiatarrak. Finalean oso gaizki egin behar zuen podiumean ez egoteko. Honela, denbora ona egin zuen finalean, urrezko domina eskuratzeko adina, baina huts egite baten ondorioz 1,21 segundoko zigorra jaso zuen eta bigarren postua eskuratu zuen Maialenek.

05 **Pagotxen Azoka hazi egin da:** Herritar ugari hainbat produktu modu onean erosteko aukera izan zuen irailaren 5 eta 6an Michelingo pilotalekuan zabalik izan zen Lasarte-Oriako Stock eta Saldoen Factory II. Azokan.

Herriko eta inguruko hainbat merkatarik hogeita inguru jarri zituzten besteak beste arropa, oinetakoak, osagarriak, bitxiak, irudi eta soinuarekin lotutako produktuak saltzeko, aurten asteburu osoan, iaz feriak izan zuen arrakasta eta harrera onaren ondoren.



Irailaren 10ean etxerako bidea hartu zuten, baina joan baino lehen, aho batez "oso ongi" pasatu zutela esan eta gero. Gure artean igaro dituzten eguntan ez dute aspertzeko astirik izan.

11 **Q kalitate ikurra eskuratu du Goiegik:** Goiegi jatetxeak Q kalitate ziurtagiria lortu zuen irailan.

Historia luzea duen tokia da. Maria Luisa Tapia amonak irekitako tabernaren arrakasta urte askotan lan ona egin izana da Juan Luis Eizmendi, Aitziber Martiarena eta Ainhoa Ormazabal orain jatetxearen ardura dutenen uestez.

Azken urteotan egunero ehun bat laguni ematen diote bazkaltzen.



02 **Pantaila akustikoak jarriko dituzte N-lean:** Gipuzkoako Foru Aldundiak Lasarte-Oria zeharkatzen duen N-1 errepidean zarataren kontrako pantailak jartzea erabaki zuen.

Zumaburu eta Sasoeta auzoetan 625 metro pantaila jartzeak milioi bat eurotako aurrekontua dauka.

Zabaleta eta Larrekoetxe auzoetara sartzeko N-laren azpiko pasabidea eta Urmieta bideko errepideko goiko pasabidea ere proiektuaren barruan kokatu ditu Foru Aldundiak.



04 **Tourreko Ostadar porrack sariak:** Batetik Zabalo eta bestetik Hodei ta Unax izan ziren Ostadar K.F.-k antolatutako Tourreko porraren irabazleak eta Irailaren 4an Ainhoa tabernan egin zen sari banaketan izan ziren, urdaiazpiko bana lortu zutenekin eta etapako zorketako irabazleekin batera. Bestalde, Ainhoarentzat izan zen puntu gehien eskuratu zuen tabernaren saria, bi pertsonentzako afaria Urgul Jatetxean.

10 **Saharako haurren oporren amaiera:** Dalahi, Dahsalama, Brahim, Fahda, Umujutha, Abdel Wadud eta Ma-alinin izan dira Oporrak Bakean egitasmoari esker Lasarte-Orian egon ziren Saharako zazpi haurrak.

10 **Somotoko kooperazio proiektuen auditoria egitea onartu zuen Udalak**

2005 eta 2008 urteen artean Somoton, Senidetze bulegoaren bidez, egin ziren kooperazio proiektuen auditoria egingo da, udal batzarrean erabaki zenez.

EAJ-ko zinegotziak pozik agertu ziren hainbeste aldiz eskatutako auditoria "azkenean" egingo delako.



18 **Udal Euskaltegiaren egoitza berria inauguratuta:** Lehenengo klaseak otsailean eman baziren ere, irailaren 18an egin zen Lasarte-Oriako Udal Euskaltegiaren egoitza berriaren inaugurazio ofiziala.

Ekitaldian Rikardo Ortega Euskara Batzordeko burua, Ana Urchueguia Lasarte-Oriako alkatea, Eugenio Mujika HABEko zuzendari berria, Jesus Mari Asurabarrena Udal Euskaltegiko zuzendaria, Udak, zein HABEeko



ZORIONAK ETA URTEBERRION!

www.zerosette.es
07ao@zerosette.es

Mugikortasun iraunkorreko astea

22 Europan Autorik gabeko Eguna ospatzen zela eta irailaren 22an autoa alde batera utzi eta beste garraio bideen erabilera bultzatzeko Kale Nagusia itxita izan zen autoentzat goizeko hamaiketatik ordu bata arte.

Irailaren 25ean, aldiz, bizikleta festa egin zen arratsaldean Andatza plazan. Biak Mugikortasun Iraunkorraren Asteko egitarauaren barruan ziren. Udaleko Ingurumen sailak aurten bizikletari protagonismoa eman nahi izan zion Mugikortasunaren Astean barruan ingurugiroa zaintzeko ibilgailurik egokiena izanik eta txirringak izan ziren nagusi Andatza plazan egin zen festan.

Arratsaldean herrian zehar itzuli bat emateko bi talde atera ziren: hauerrek Eusko tren geltoki eta Atsobakar ingurutik ibilbide motza egin zuten eta koskorragoak, Azkorte bideraino joan ziren Plazaola trenbidearen garai bateko ibilbidean zehar eta ibai ertzetik Andatzara itzuli.

Ondoren euren trebetasuna erakutsi ahal izan zuten Andatza Plazan egin ziren jokoetan.



ordezkariak eta euskaltegiko ikasleak egon ziren.



Oriako Udalaren izenean Ricardo Ortega Euskara saileko burua, Xabier Lasa liburua egilea, Patxi Etxeberria omendua, Imanol Lizardi Bertso Eskolako ordezkaria eta Felix Irazustabarrena Gipuzkoako Bertsozale Elkartekoa.

26 Akordeoi Jaialdia: Jende asko hurbildu zen Manuel Lekuona Kulturetxean, urtero legez, Zero Sette akordeoi orkestrak antolatzen duen VI Akordeoi Jaialdira.

Aurtengo gonbidatuak bi izan ziren, Xabier Iglesias lasarteoriatarra eta Nathalie Boucheix frantsesa eta bere taldea. Akordeoilari frantsesak bigarrenez jotzen zuen kultur etxean, duela bi urteko arrakasta zela eta.

Hauek Lasarte-Oriako akordeoi

27 Patxi Etxeberriari omenaldia: Lasarte-Oriako bertso eskolak Patxi Etxeberria omendu zuen.

Kultur Etxean egin zen ekitaldi nagusian hainbat opari jaso zituen eta berarekin hainbat urtetan aritutako bertsolariek kantatu zuten. Intza elkartean bazkaldu zuten gero.



22 Patxi Etxeberriari buruzko liburua: "Patxi Etxeberria. Hizketan bezala bertsoan. 50 urtez plazagizon!" Xabier Lasak idatzitako liburua aurkeztu zuten Koldo Mitxelena kulturgunean, Donoztian.

Aurkezpenean izan ziren Lasarte-

orkestrarekin batera emanaldi paregabea eskaini zuten.

matze Digitala dendakoei 72,8 kiloko hegalaburra harrapatu zuten Kantauri itsasoan.

27 72,8 kiloko hegalaburra: Patxi Unanue eta Begoña Lumbreras, Bizker Imprimariarenak.

Arrantzale iaioek udan lau alditan saiatu baziren ere, azkeneko honetan lortu zuten saria.

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Kale Nagusia 21
Tel.: 943 362073

2010 ZORIONTSUA OPA DIZUEGU!

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Euskadiko Kutxa

2010
ZORIONTSUA OPA
DIZUEGU!

LEIZOTZ poligonoa, D partzela
Andoain-Urnieta errepidean
ANDOAIN (Gipuzkoa)
Tel.: 943 304300
Faxa: 943 304218
e-maila:
pescanorte@euskalnet.net

PESCANORTE S.A.

Mokadu
goxoen txokoa
duzue gurea!



Rafa Diez Usabiaga atxilotuta

13 Rafa Diez Usabiaga lasarteoriatarra eta LAB-eko idazkari nagusi ohia, atxilotua izan zen LABen Donostia-ko egoitza nagusian Baltasar Garzon epailearen aginduz. Batea operazioa deritzon honetan, Diezekin batera besteak beste, Arnaldo Otegi atxilotu zuten. Auzitegi Nazional-eko epailearen arabera, hamar atxilotuak Batasunaren zuzendaritza berrosatu nahian zebiltzan, Bateragune organoa sortuaz.

03 **Endika Gartzia eta David Martin garai:** Asteburuan, Zumaia-ko Zakila bira eta Arriarango duatloi kros txapelketak burutu ziren.

Herriko atletak izan genituen lehian eta gainera, lehenengo postuak eskuratu zituzten gure bi herritarrek, David Martinek Zakila biran eta Endika Gartzia duatloi krosean.

03 **X. urteurren jendetsua:** Basaundi bailaratik irten eta Leitzara bidea egin zuten 40 bat herritarrek. Buelta egin eta Lasarte-Orian indarrak ederki berreskuratu ahal izan zituzten Buruntz-Azpi elkartearen antolatutako bazkariari esker.

Hamar urte dira irteera hau egiten dela eta egun seinalatua ospatzeko, antolatzaileek kamisetak egin eta txangoan parte hartu zutenei banatu zizkieten. Eta, gainera, giro ederra izan zen bazkari ostean txalaparta, trikitixa eta panderoaren laguntzaz.



04 **Musika Eskola Kilometroak 09an:** Donostian ospatu zen Kilometroak 09. Bertan, Lasarte-Oriako Musika Eskolako trikitilariak parte hartu zuten. Zurriola ikastolan jarritako lehenengo gunean izan zen eta, Irungo Txorimaloak Soinu Taldearekin batera aritu ziren.

04 **Festa nagusi zaharren omenaldian:** Erretiratuek ondo pasatzeko gogoak zituztela argi geratu zen egun guztian zehar. Udalak zaharren omenaldirako prestatutako ekintzetan, meza, kontzertua eta bazkaria. Aurpegi alaiak eta ondo pasatzeko grina argia nabaritu zen.

08 **Semblante Andaluz, Pirritx eta Porrotxekin:** Semblante Andaluz elkarteko abesbatzak sevillana bat euskaraz kantatu eta grabatu zuten Pirritx eta Porrotx paila-zoekin batera hauek abenduan argitaratu duten "Irrien Lagunak" diska berrian sartzeko. Abuela Maria Luisa abestiaren letra Jon Maia bertsolariak idatzi du.

10 **Motorrez bete zen Lasarte-Oria:** Mendi Kafe Rock tabernaren bosgarren eta Drakos Custom motorren taldearen seigarren urteurrena ospatu zituzten gure herrian. Guztira, motor elkarte ezberdinetako 100 bat lagun bildu

ziren ospakizunetan. Eguerdian hamaiketako; ostean, motor ezberdinak herriko kaleetatik barrena eta Larre jatetxean bazkaria. Ostean, Mendi Kafe Rocken jarraitu zuen festak eta Jose Maria Sanz Loquilloren bisita ere izan zen.

12 **Semblante Andaluz elkar-tearen Aste Kulturala:** Urriaren 12tik 17ra, Semblante Andaluzek Aste Kulturala ospatu zuen hainbat ekitaldirekin, mus eta tute txapelketa, patata tortilen lehiaketa, haurrentzako marrazki lehiaketa, jolasak eta txokolatada, hitzaldia, herri bazkaria eta dantza emanaldia.



17 **Futbola omenaldi gisa:** Jose Benito eta Iñaki Martija anaien zuzendaritzapean Sasoeta-Saustatxo taldean jokatu zuten lasarteoriatar taldea bildu zen Sasoeta-ko ikastetxean entrenatzaileei omenal-

dia egiteko. Partida eta bazkaria batekin omenatu zituzten Martija anaiek eta oroigarriak ere eman zizkieten.

18 **Omenaldia Jose Luis Aranbururi:** Iazko abenduan zendu zen Jose Luis Aranburu herritarra, amiantoak sortutako gaixotasunaren ondorioz. Aranbururen lagunak eta senideek omenaldi bat egin nahi izan zioten berak hainbeste maite zuen Aralar mendian. Omenaldia eta gero, Aldaz herriko Barnekoe-txe jatetxera joan ziren babarrun jana egitea.

18 **Buruntzaldeko ibilbideetan barrena:** Buruntzaldeko Ibilbideen bigarren eguna ospatu zen eta eremuko herritar ugari ikusi ahal izan ziren mendiko bideetatik barrena. Eguraldi paregabea zegoen, naturaz gozatu eta kirola egiteko egun proposa benetan.



URTEBERRI ON!

LASARTEARRA

KIROL ETA KULTUR
ELKARTEA

Erribera kalea 10, atzealdea • Tel.: 943 362997
LASARTE-ORIA

EB-Berdeak Udaleko Gobernu paktua hautsi zuen

22 Bi urte eta erdiko lankidetzaren ostean, Lasarte-Oriako EB-Berdeak taldeko zinegotziak, Rikardo Ortegak, Gobernu paktuaren haustea jakin arazi zuen. Arrazoi nagusia, Lasarte-Oriako alderdi sozialistak ez duela atez-ateko zabor bilketaren esperientzia martxan jarzeko konpromezua beteko.



18 Oriatarren omenaldi beroa: Urtero legez, Oriako bizilagun eta lagunak bildu ziren. Eguerdian Karmengo Amaren kaperan meza entzun zuten. Ostean, guztiek Txitxardin Beltxa jatetxera egin zuten. Eta bertan, Jose Javier San Sebastian praktikanteari omenaldi beroa egin zioten.



25 Bi mila lagun lasterka: Kirolzaletasuna izan zen garaile herriko kaleetan burutu zen XIV kros herrikoian. Bi mila korrikalarik parte hartu zuten eta kolorea eman zioten Lasarte-Oriari. Eguraldiak ere lagundu zuen, giro freskoa, korrika egiteko egokia, euririk ez zuen egin goiz guztian.

Guztien artean azkarrena Orkoiengo Andoni Etxeberria izan zen; David Martin herritarra 18 segundo beranduago heldu zen helmugara. Eta helduen ostean, eteko txikien txanda izan zen, Kros txikian.



Tolosan. Bertan hiru judoka lasarteoriarrek parte hartu zuten pisu ezberdinetan, LOKEko Beñat Elizalde eta Usurbilgo Judo taldean dabiltzan Andoni Aizpuru eta Mikel Ponga.

Hirurak sartu ziren bere mailako finalan baina zorte ezberdina izan zuten. Pongak eta Aizpuruak irabazi zuten eta txapela azaldu zute; Elizaldek, ordea, ezin izan zuten arerio gailendu eta txapeldunorde izan zen.

26 VII. Osasun Jardunaldiak burutu ziren: Asteazkenean, alkoholarik, bularrek, minbizia eta emakumeek izan ditzaizuten minbiziak, zaintzaileak eta teknologia berriei zaletasuna izan ziren XVII. Osasun jardunaldien barruan aztertu ziren gaiak.

Honetaz gain, gure herrian kolon

Minbiziari buruzko ikerketarekin lotuta, kolon minbiziaren prebenitzeko dietari buruzko hitzaldia eskaini zuten Osasun zentroko zuzendari den Mary Luz Jauregi eta Rosa Gainza erizainak.



jokatu zen Jalgune elkarteak antolatuta. Laugarren edizio honetan, Guztira 40 gazte bildu ziren eta Jalguneko gazteak eta elkartekoak ez diren beste lasarteoriatarrak bikoteka jokatu zuten. Era honetara, Jalguneko gazteek Lasarte-Oriako gazteak ezagutu, harremanetan jarri ziren.

Denok batera arratsalde polita eta desberdina pasa zuten.



18 Chourraut palista Gipuzkoako txapeldun: Maialen Chourraut San Miguel kanalean ospatu zen Gipuzkoako Slalom Txapelketan gailendu zen. Lehenengo jaitsieran lehenengo postua lortu zuen dagoeneko, nahiz eta 2 puntuko penalizazioa izan. Bigarrenean, berriz, ez zuen akatsik egin, horregatik lehenengo saioko denbora hobetu zuen.

25 Ponga eta Aizpuru judoak Gipuzkoako txapeldun: Senior mailako Gipuzkoako txapelketa burutu zen

31 Dardo txapelketa kooperatiboa: Also tabernan Dardo Txapelketa Kooperatiboa

COPILASARTE

ESKUBERRI ON!

- ESTANPAZIOAK
- FAX-ZERBITZUA
- FOTOKOPIAK
- AZALEZTATZEAK
- PLASTIFIKAZIOAK

Kale Nagusia 34 • Tel.: 943 366930
Faxa: 943 366931 • Lasarte-Oria



Agate

ESTETIKAKO ARETOA

KALE NAGUSIA 51 • TEL.: 943 370549 • LAJARTE-ORIA

- Makillajea
- Manikura
- Pedikura
- Solariuma
- Laser bidezko Depilazioa
- Depilazio elektrikoa
- Aurpegiko tratamenduak
- Masajea

2010 ZORIONTSUA OPA DIZUEGU !!

berria



Zubi tabernak atek itxi ditu

01 Egun berezia izan zen Jesus Mari Zubizarreta eta Isabel Urrestarazu senar-emaztearentzat. Urtetan Zubi tabernako barra atzean egon ostean, erretiroa hartu zuten eta, tabernako atek betirako itxi.

Lasarte-Oriako erdialdea aldatzen ikusi dute eta hainbat gertaeren testigu izan dira. Baita bezero ugariaren kontuak entzun eta ondo gorde ere. Herriko taberna historikoak azaroan betirako agur esan zigan.

01 **Domu Santu jendetsua:** Santu Guztien Egunean eguraldi bikaina egin zuen. Herritar ugari inguratu zen Illarrraltzueta hilerrira kolore eta mota askotako lore sortak haien senitarteko eta lagun hilobietara eraman eta gogoan dituztela adierazteko

Goiz-goizetik Lasarte-Oriatik Illarrraltzueta hilerrirako bidea kotxez, zein oinezkoz bete zen, hauek guztiak gure artean ez dauden pertsonen agur egitera joanak.



03 **Rafa Diez lasarteoriatarren atxiloketa berretsi du Garzonek:** Baltasar Garzon Espainiako Auzitegi Nagusiak Rafa Diez, Arnaldo Otegi, Miren Zabaleta, Arkaitz Rodriguez eta Sonia Jacinto espetxeratzeko erabakia berretsi egin zuen, defentsen helegiteak atzera botata.

Rufino Etxeberria, Txelui Moreno, Ainara Oiz, Amaia Esnal eta Mañel Serra aske utzi zituzten, fidantza ordainduta kasu batzuetan.

06 **Aurrera pausuk ematen:** Lasarte-Oriako Udalak eta Atzegik lankidetzat hitzarmen bat sinatu zuten.

Ana Urchueguia alkateak eta Jose Luis Basoko Atzegiko ordezkariak sinatutakoari esker, Jon Roncero, Down Sindromea duen gazte lasarteoriatarra urtebete izango da udal zerbitzuetan laguntzen.

Helburua gizartea adimen urritasuna duten pertsonen izan ditzaketen balore eta ahalmenez jabetzea da.

Eta, aldi berean, aukerak ematen zaizkie beren inguruan eta herriaren egunerokotasunean modu aktiboan parte-hartzeko.



06 **2010eko Ordenantza fiskalaren aldaketa aurrera aterazen:** 2010 urterako ordenantza fiskalak aldatzeko espedientea onetsi zen PSOEko zinegotzien bozkek. EAJ, PP eta zinegotzi ez adskribatuek aurka eta LOHP eta EB abstenitu ziren.

Era honetara, besteak beste, estolderia eta hondakinen bilketa %5 igoko dira, kiroldegiko zerbitzuen prezioak ere gora egingo du.

Eta, bestetik, zirkulazio zerga eta Ondasun higiezin zerga mantenduko dituzte.

12 **Indarkeriaren aurka:** Lasarte-Oriako Bilgune Feministak mugimendu feministak Euskal Herrian emakume bat erailtzen dutenerako protokoloa aurkeztu zuen. Protokoloan erailketa bat komunikabideetan argitaratu eta 24 orduetara lurraldeko herri ezberdinetan mobilizazioak egitea adostu zen.

Era berean, Bilguneak herriko emakumeei deialdia egin zien mobilizazioetan parte hartzeko.



12 **Birziklapena arte-lan:** Birziklapena eta artea bateratzen dituen, "Reziklate09" erakusketara iritsi zen Lasarte-Oriako Andatza plazara.

San Markoseko Mankomunitateak antolatutako lehiaketan parte hartu zuten 13 edukiontzi artistiko ikusteko aukera eduki genuen eta hauen artean informazioa karpa bat ere jarri zen.



14 **Rekondo eta Loiarre irabazle:** Arriaskal eta elkartek bere lehenengo Mus Txapelketa burutu zuen.

Giro ederrean hamar bikote lehiatu ziren elkatean txapela eta sariak eskuratzeko.

Final estuan Julian Loiarre eta Imanol Rekondok Tomas Pascual eta Josema Hernando menderatu zituzten eta txapela eskuratu zuten.

SEMBLANTE ANDALUZ

Golf plaza 2
Lasarte-Oria
Tel.: 943 363699

GURE ROCIOKO
AMA BIRJINAREN
ERMANDAEREKIN
BATERA
2010
ZORIONTSUA
OPA DIZUEGU.

Eskemik asko gugan jarritako konfidantzagatik

SALAZAR URTEBERRI ON!
PRO-FESIONAL

Revisión y mantenimiento profesional

ALCANTARA COSMETICA

academie

L'ORÉAL PROFESSIONNEL

WELLA

Geltoki Kalea 15
Tel.: 943 360211
salazar@salazarpro.net
www.salazarpro.net

Loidi-Barreneko pilotaleku berria, edonork erabiltzeko prest



30 Ana Urchueguia alkatea, Mikel Cabieces Estatuko ordezkarria, Udal zinegotziak eta Kirol Zerbitzuko Arduraduna Karlos Altuna, besteak beste, Loidi-Barren eremuko frontoi berria bisitatu eta inauguratu zuten.

Kiroldegi ondoan dagoen pilotaleku berriari buruz, "herritarrek erabiltzeko prest dago. Irekia izango da eta edonork erabili ahalko du. Beraz, dagoeneko haurrak etorri daitezke hona jolas-tera," azaldu zuen alkateak.

14 **Sariak ehizan eta arrantzan nabarmendu diren Buruntz-Azpi elkarteko bazkideei:** Buruntz-Azpi ehiza eta arrantza elkar-tekak ehiza eta arrantza sariak banatu zituen.

Aurten, Jesus M^a Gonzalez itsasoko arrantzan, Javi Salsamendi zizare arrantzan, Eneko Urdanpillera galeperra kaiola eran atalean, Mario Garrido eta Juan Cruz ehiza txikia txakurrarekin modalitatean eta Juan Iraola plater tiroketan izan dira onuradunak.

Eta hauetaz gain, sari bereziak Antonio Carrasco beteteranoarentzat, loritz Gonzalez jubenilarentzat eta Laura Martinrentzat.

19 **Musika Eskola Santa Sezilia ospatzen:** Santa Sezilia eguna azaroaren 22an bazen ere, 19an hasi ziren musika eta musikarien eguna ospatzen herrian. Kultur Etxetik kalejiran irten ziren.



Ospakizunekin jarraikiz, Santa Sezilia egunean, Alboka Abesbatzak

Arantzazuko Amabirjinaren elizan 12:30etako meza girotu zuen eta, azaroaren 23an, Musika Eskolak kontzertu ederra eskaini zuen arratsaldean Manuel Lekuona kultur etxean.

25 **Indarkeriaren aurka:** Genero indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna ospatu zen.

Gure herrian ere, Gizarte Zerbitzuak eta Emakumeen Zentro Zibikoak antolatuta, hainbat ekitaldi burutu ziren egun hori gogoratzeko.

Goiz osoan zehar, Brigitarren eta Dorre parkearen artean Zentro zibiko emakumeak genero indarkeriarekin lotutako herritarren esaldiak, pentsamenduak, e.a. bildu zituzten kutxa batean.

Era berean, herritar batzuk eta udal ordezkariek pankarta batean idatzi zituzten gaiari buruzko gogoetak eta honekin kontzentrazioa egin zuten. Ostean, eguerdi aldera, koloretako globoak askatu zituzten aurten indarkeriaren biktima izan diren emakumeen oroimenez.



Arratsaldean, berriz, hitzaldia eskaini zen Zentro Zibikoan. Clara Campoamor elkarteko abokatuak.

28 **Jalguneko gazteen jaialdia Kultur etxean:** Abenduaren 3an, Urritasuna duten pertsonen nazioarteko eguna zen.

Egun berezi hori ospatzeko, hirugarren urtez Jalgune elkarteak, udalaren laguntzarekin jaialdia antolatu zuen azaroaren 28rako.

Jalgune taldeko gazteek bere gaitasunak erakutsiko zituzten kultur etxe-ko aretoan. Baina ez ziren taula gainean bakarrik egon Semblante Andaluz, Ostadar, Poteots batukada eta herriko hainbat taldek bere elkartasuna erakutsiko zieten, haiekin abestuz, dantzatzuz edo antzerkia eginez.



28 **Merezitako saria jaso zuen Jon Lasak:** Lehendabiziko aldiz Ttakun Sariak ospatu ziren Txintxardin Beltza jatetxean. Lehenengo edizio honen sariduna,

Lasarte-Orian aski ezaguna den Jon Lasak musikari eta irakaslea izan du.

Ondo afaldu, urteko kontuen berri eman eta nola ez, festa asko bezala, hau ere dantzan eta jai giroan amaitu zen Atxega, Iparragirre, San Jose eta Iker Telleria musikarien laguntzarekin.



30 **Lasarte-Oria Nazio Batuen Garapenerako Programan:**

Lasarte-Oriako Udalak Nazio Batuen Erakundearekin sinatu duen hitzarmen baten ondorioz, udalak Ekuadorren garatuko den lankidetzako programa batean parte hartuko du. Honetan, 3. adineko herritarrei zuzendutako zentro gerontologikoa eraikiko da.

Era honetara, Lasarte-Oriako Udala Nazio Batuen Garapenerako Programaren parte izango da.



BURUNTZ-AZPI

Arrantza eta ehiza elkarteak

BASAUNDI BAILARA 9
TEL.: 943 370685
LASARTE-ORIA

2010 ZORIONTSUA OPA DIZUEGU!





Egunkaria epaitzearen aurka

14 Madrilgo Audientzia Nazionalen Egunkariaren aurkako epaiketa abenduaren 15ean hasi zen, epaiketa hori salatze eta auzipetuei babesa emateko herritar ugari bildu zen Sagardotegi kalean. Eta eguraldiari aurre eginez, elurra hasi baitzuen, herria oro har epaiketa honen kontra dagoela argi eta argi adierazteko argazkia atera zuten.

01 **Michelinen kaleratzeen aurka:** Eulen enpresak Michelin enpresa babesarekin 10 langile kaleratu zituen abenduaren hasieran.

LAB sindikatuek jakin arazi zuten, Eulen taldea, oso erata dago Euskal Herri osoan eta lan bolumen handia du. Hala ere, ez zituen kaleratutako langileak enpresako beste lan zentroetan berkokatuko.

Horregatik, Euleneko langileak, abenduan zehar, eguneroko kontzentrazioak egingo dituzte Michelin enpresaren aurrean.

02 **Ohorezko Goya Antonio Mercererori:** Lasarteoriatarri Ohorezko Goya

emango diotela jakin arazi zuen Estatu Arte eta Zientzia Zinematografikoen akademiak. "Ibilbide zinematografiko ikaragarria egin du Mercero. Eremu oso ezberdinetan lortu du arrakasta. Duda izpirik gabe Ohorezko Goya merezi du" aipatu dute.



04 **Durango azoka iritsi da:** Durango Euskal Liburu eta Disko Azokako 44. Edizioak abenduaren 8a arte ireki zituen ateak. Geradiaga Elkarrekin antolatzen dituen ekitaldiez, hala nola, hitzaldiak, kontzertuak edo solasaldietaz gain, herriko Martin Anso, Pablo Barrio, Pirritx eta Porrotx, Harkaitz Cano eta Jesus M. Perez Azacetaren liburu eta produktu berriak aurkitu ahal izan genituen.

aukera eskaintzeko asmoa zuela jakin arazi zuten.

11 **Zabaletako Aste kulturalari hasiera eman zitzaion:** Iran Estatu islamiarrari buruzko hitzaldi batek eman zion hasiera Zabaletako Aste kulturalari.

Aurtengo berrikuntza nagusia, ekitaldiak urtean zehar antolatuko direla da.

10 **Kulturretako kafetegiko kontzertuak kudeatzen jarraituko du Xpression-ek:** Lasarte-Oriako Udaleko Gazteria eta Festetako sailak eta Xpression kultur elkarteak hitzarmena berri zuten.

Honen bidez, hurrengo urtean zehar Manuel Lekuona Kulturetxeko kafetegian 13 emanaldi antolatzeko konprometua hartu du kultur elkarteak. Gainera, berrikuntzak egongo direla aurreratu zen Jokinek, "aurten arte eszenikoa ere egongo dira, baka-rrizketak eta kafe antzerkia."

13 **Azoka arrakastatsua:** Nahiz eta euriaren mehatxua izan eta tenperatura jaitsiera nabaria izan, herritar eta kanpotar ugari bildu zen "Merka2SanMarkos" bigarren eskuko azokan.

Egoera onean zeuden produktu ugari, arropa, altzairuak, liburuak edo musika diskoak, salgai egon ziren Dorre parkean jarritako hamalau karpeta.

Gobernuz Kanpoko erakundeak eta elkarteek dirua bildu zuten produktuen berrerabilera sustatzen duen azoka honi esker.



04 **Michelin-Lasarte enpresak malgutasun neurriak sei hilabetez luzatu ditu:** Enpresa Batzordeak eta Michelin enpresak onartutako akordioaren ondorioz, langile bakoitza gehienez 70 egunez egongo da jardueratik kanpo 2010. urte erdi aldera arte. CC.OO, UGT eta CSI neurriari baiezkotza eman zioten 11 bozka-kin, LAB eta ELA aldez, 9 botoekin kontrari azaldu ziren eta ESK abstentzioaren aldeko bidea hartu zuten.



11 **Kirol instalazioak urte osoan alokatzeko aukera emango du Kirol Zerbitzuak:** Lasarte-Oriako Kirol Zerbitzuak 2010 urtean Kirol Guneko frontoia eta pista, kiroldegiko pista edo trinketa urte osoan zehar, uztaile eta abuztua izan ezik, zenbait ordu eta egunetan alokatzeko

TXIKIERDI

JATEXEA • TABERNA

EGUNEKO MENUA

ASTE BURUKO MENU BEREZIAK

Txikiardi auzoa • Tel.: 943 362735 • USURBIL

URTEBERRI ON
2010!



VIII. Multimusikalak elurrari aurre egin zion



19 Musika giroak berotu zuen Multimusikalaren VIII.edizioa. Ska, rock, rap-a, trikitixa... elurrari nagusitu zitzaion eta giro paregabea sortu zen herrian. Andatza plazan ezarritako karpa eta herriko tabernak gainezka egon ziren bi egunetan zehar, lasarteoriarrak eta asteburu honetan bisitatu zigutenak ederki asko disfrutatu zuten Multimusikaleko antolatzailak prestatutakoarekin.

14 Sukaldaritza errazeko jardunaldiak: Herritar ugari bildu zen Manuel Lekuona kulturetxean, abenduaren 17a arte, ospatuko ziren Eguberrietako sukaldaritza errazeko jardunaldietan.

Ormazabal loradendako lagunek eskainitako Eguberria apaintzeko ideiak eta Goiegi jatetxeko Juan Luis Eizmendi sukaldetburuak, Dana Ona jatetxeko Alberto Rodriguez sukaldetburuak eta Pilar Arteaga aretoburuak eta Jose Manuel Acedo Labe Goxoko gozogileak sukaldatutako errezetak, etxean egiteko errazak izan ziren benetan.



16 Irizar enpresak herriko Jema enpresako akziodun-gehiengodun bilakatu da: Ormaitegiko autobus enpresak bere pausoak beste sektoreetara bideratu nahi ditu. Teknologia berrien garapenean jarri du bere arreta eta, horregatik, Lasarte-Oriako JEMA enpresako akziodun-gehiengodun bihurtu da.

15 Kooperazio laguntzak aztertuko dituen komisiorekia osatuko da:

Somoto, herrialde nikaraguarrek Lasarte-Oriatik jaso dituen diru laguntzak nola banatu diren azaltzea eta irregulartasunak egon diren aztertzeko komisiorekia sortzea onartu zuen Udal batzarra aho batez. Lehenengo proposamena atzera bota eta PPko zinegotziak aurkeztutakoarekin bat egin zuten guztiek.



18 "Gipuzkoa Kirolak Sariak 2009" Chorrut eta Delgado saritzen ditu:

Maialen Chorrut eta Raquel Delgado, besteak beste, saria eskuratu zuten Foru Aldundiak banatzen dituen "Gipuzkoa Kirolak Sariak" ekitaldian. Maialen Chorrut lasarteoriarra, munduko txapeldunordea bilakatu da aurten eta horregatik, Kirol Balentria saria eskuratu zuen. Raquel Delgadok, bestalde, bere kirol ibilbidearengatik eskuratu zuen saria. Raquel Lasarte-Orian soberan ezaguna da Sasoeta eta LOKE sasibaloitaldetan jokatu baitzuen.

18 Lasarte-Oriako errotondak argituko ditu Udalak:

Energia aurreztu eta egoera ekonomikoari aurre egiteko asmoz, Lasarte-Oriako Udalak aurten Donostia Etorbidean, Kale Nagusia eta bertako errotondetan jarri ditu Gabonetako argiak. Era honetara, urtarrilaren 7a arte argitu eta alaituko dute herriko ardatz nagusia Gabonetako argiek.

gai. Abeslari kubatarrek, Pirritx, Porrotx eta Mari Motots-ek gonbidatuta heldu ziren urriaren 6an Euskal Herrira "Irrien lagunak" hauen azken diskoaren grabaketan parte hartzeko. Bi abesti grabatu zituzten eta ondoren herriz herri ibili dira urte amaiera bitartean.



18 Kubako kantariak Zabaletan: Yannaysa Prieto eta Maygred Bourricaudy Kubako abeslariak Zabaleta auzoan kantatu zuten.

Aste kulturean kokatzen zen ekitaldi honetan, Kubari buruzko Iñaki Petxarromanen hitzaldia eta herriko bertsolarien saioa ere izan zen entzun-

19 Uriarte gotzaina pastoral kontseilu berriaren sorreran:

Lasarte-Oriako bi parrokiak, San Pedro eta Arantzazuko Ama Birjinarena, Aginakoa eta Usurbilgoak bat egin eta Pastoral kontseilu berria sortu da. Sorrera bedeinakuta eta honen ordezkari bere karguak emateko, Juan Mari Uriarte Donostiako gotzaina etorri zen Lasarte-Oriara.



2010 ZORIONTSUA OPA DIZUEGU!

Etorri gure jaki goxoak

VINA del MAR

TABERNA-KAFETEGIA

Ola kalea 2 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 362768

kima

masaje-lekua URTEBERRI ON!

Goyo Martin
Xabier Carbayed

Kale Nagusia 44 • Tel.: 943 366197
LASARTE-ORIA

INSAUSTI

Taberna

URTEBERRI ON GUZTIOI!

Geltoki kalea 6 • Tel.: 943 361151
LASARTE-ORIA



Olentzero etorri zen Lasarte-Oriara

24 Ongietorri mundiala egin zioten Olentzerori herriko gaztetxoek. Trikitilariekin batera kalejiran Loidi-Barreneko frontoi berrira hurbildu ziren. Olentzeroren zain zeudela, Xixuko, Porrotzek eta Olentzeroren lagunentzat abenturak eta sorpresez gozatzeko aukera izan zuten hurrek. Umeen aurpegiak urduritasuna eta emozioa islatzen zuten. Eta are gehiago, Olentzero iritsi eta honi eskutitza eta muxuak eman bitartean.

20 **Santa Barbara Mendizale Elkartaren 50 urteurrena:** Santa Barbara Mendizale Elkarteko bazkide ohi batzuek, elkarte sortu zela 50 urte igaro direla ospatzeko, bazkari eder bat egin zuten Arrieskalleta Elkartean, eta orduko lagun giroa bizirik dirauela narbamen gelditu zen.



21 **Jende asko bildu zen Santo Tomas egunean:** Ttakun Kultur Elkartek urtero antolatzen duen Santo Tomas azokak aurten ere arrakasta handia izan zuen.

Arratsaldean taloak banatzen hasi eta etengabe aritu ziren lanean bukatu arte. Haur eta helduen arreta ere jaso zuen ikusgai zegoen txerriak. Gaztainak eta sagardoa dastatzeko aukera ere bazen. Baina ez zen janariaren inguruan bildu soilik festa, musika, dantza eta bertsolariak ere izan ziren.

21 **Inchausti eta Otaegi altzari dendetako langileak greban:** Abenduaren 21, 22,

23, 28, 29 eta 30era grebara deituta zeuden Inchausti eta Otaegi altzari dendako langileak. Lasarte-Oriako denda eta Errekaldekoa itxita aurkitu genituen, beraz. Langileek lan paktu bat eskatzen zuten, enpresaren azken erabakiak jakin ondoren.

22 **Jalguneren lokal berriaren inaugurazioa:** Urtea amaitzear Jalgone Elkartek lokal berria inauguratu zuen. Anbulatorio berriaren gainean, 2. solairuan dute. Azpiegitura berriekin, beraien lana aurrera eramateko aproposak.

22 **Uretako festa:** Saskibaloian, puzgarrietan... ibili ziren gaztetxoak, baina ohiko aldaketa batekin, aktibitate guztiak uretan, igerilekuan izan ziren.

22 **Gabonetako Haur parkea:** Michelingo Udal Kiroldetxan etxeko gaztetxoek ondo pasatzeko aukera paregabea dute, izan ere, Gabonetako Haur Parkeak urtarrilaren 4a arte bere atek irekiak izango baititu. Puzgarriak, globoflexia, malabarismoa...

23 **Herriko merkataritza bultzatzeko musika:** Eusko Jaularitza bideratutako Merkagune laguntzei esker aurten gabonetako erosketak egin bitartean musikaz

gozatu ahal izan genuen. Herriko 4 zonalde ezberdinetan musika erosketa laguntzaile bihurtu zen. 16 talde ezberdin entzuteko aukera 24 eta 30 goizean, eta 23 eta 31ko arratsaldean. Hurrengo saioa urtarrilaren 4an izango da.

24 **Kaleko errondak:** Gabon bezperan musika herrian non-nahi entzuteko aukera izan genuen. Zabaletako auzotarrak euren auzotik ibili ziren kantari. Nazimenduaren lagunak, Landaberriko ikastolako gaztetxoak goizez eta Alboka abesbatza eta Etxerat arratsaldez herriko kaleetatik zehar trikitixaren laguntzaz kantari aritu ziren; Erketz Dantza Taldeko kideak aldiz, baserriz-baserri ibili ziren kantari. Atsobakar zaharren egoitzan ere ez ziren Gabon Kantak falta.





ANAIAK

JANTZI-DENDA

40 urte zuekin!

2010 ZORIONTSUA
OPA DIZUEGU!

Kale Nagusia 25 • LASARTE-ORIA

Tel.: 943 362386



JUAN IRAOLA & HIJOS S.L.

ITURGINTZA



**ALTZARIEN ERAKUSKETA
ETA SALMENTA
LASTER IREKIKO DUGU**

AIRE GIROTUA

BEROKUNTZA

ITURGINTZA

GASA

Eskerrik asko gudan izandako konfiantzagatik !

2010 ZORIONTSUA OPA DIZUEGU !

Iñigo de Loiola Kalea 8 behea • administracion@iraola.eu • Tel.: 943 36 0 500 // 652 774679

TABERNA *Buenetxea* KAFETEGIA

URTEBERRI ON!

GAU OSOA IREKITA !!

Urteberri egunean
12:00etatik aurrera
irekita!



**ZATOZ GUREKIN 2010 URTEARI
ONGI ETORRIA EMATERA !!**

OPARIAK BANATUKO DITUGU !

**Pintxoetan
aukera zabala**

**Pablo Mutiozabal 2 • Tel.: 943 369508
LASARTE-ORIA**

**KAFE BEREZIAK:
IRLANDESA
ESKOZESA
KAPUTXINOA
BONBOIA**

IZARRA BITXITEGIA



**2010 ZORIONTSUA
OPA DIZUEGU!**



www.izarrabitxitegia.com

Geltoki kalea 19 • Tel.: 943 371384
Juan XXIII.a plaza, z/g • Tel.: 943 364945

IPARJOY[®] A.I.E.

